ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2008ko ekainaren 9a > Astelehena > VI. urtea > 193. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Zalantza barik, boluntarioen esku dago Gurutze Gorriaren etorkizuna"



**Mikel Garagorri**
Gurutze Gorriaren sortzailea > 06

**JENDARTEA**
**Politikan parte hartzen ikasteko tailerra hasiko da bihar** > 05

**TURISMOA**
**Arrikrutzeko kobak 25.000 bisitari izan ditu bere lehen urtean** > 05

**BERGARA**
**Oraingo astean hasiko dira Kristo Obreroko urbanizazio lanak** > 11

**ARETXABALETA**
**Ikur frankistak kendu dituzte Bedarretako etxe batzuetatik** > 13




**ANIMAZIOA** Alkora perkusio taldeak musika eta dantza emanaldia egin zuen zapatu arratsaldean Bergarako plazan.

JOSETXO ARANTZABAL

**KULTURA** > MUNDUMIRA FESTA

# Mundumira, inoiz baino arrakastatsuago

**BIKAINA** Ekintza guztiek erantzun bikaina izan dute, batez ere, Alpha Blondyren kontzertuak

**HANDITZEA** Antolatzaileek uste dute Mundumira ibarrean finkatuta dagoela eta handitu daitekeela > 23-25

**EKONOMIA** > GARRAIOA

## Garraio sektorea, protestan

Gaur hasiko dira huelga eta beste mobilizazio batzuk > 03

**KIROLA** > SASKIBALOIA

## "Ederra izan da liga irabaztea"

Tau taldeko Ander Garcia bergararra, elkarrizketatu > 21

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 07-08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**KIROLA** > PILOTA

## Debagoiendarrek jokatuko dituzte Debarroko finalak

Datorren domekan, hilak 15, jokatuko dira Arrasateko Uarkape pilotalekuan Debarroko Hirurok sariketaren finalak. Debagoiendarrek eta debabarrendarrek jokatzen dute txapelketa hori, baina oraingoan gure bailarako pilotariak izango dira finaletan ibiliko diren guztiak. Debabarrendarrek Elgoibar bakarrik sartu zuten finalerdietan, gazte mailan eta nagusietan, baina batean ere ez dute lortu finalerako sailkatzea. Beraz, honela geratu dira aurtengo txapelketako finalak: kadeteetan, Aretxabaletak eta Eskoriatzak jokatuko dute; gazte mailan, eskoriatzak eta Arrasatek; eta nagusietan, Antzuolak eta Elgetak. > 20

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Ekaineko zozketa

Irabazle izan zaren jakitea nahi?

> Ikus 2. orria

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

# Harpidedunen txokoa

## Ekaineko irabazleak

**PARTE HARTZEKO**

**SMS 5533**
**harpidetza@goiena.com**
**Tel.: 943 08 10 50**

# ZU IZAN ZARA IRABAZLEA, ZORIONAK!

**CANON KAMERA**

EROSKI zurekin



Irabazlea:
MAITE MUÑOZ ARRIETA
(Bergara)

**KAMISETA + POLTSA**

skunkfunk



Irabazlea:
KRISTINA ATXA GALLASTEGI
(Bergara)

**ZIRA + KAMISETA**

EKFB Euskal Selekzioa



Irabazlea:
MARIJO EROSTARBE GARITANO
(Oñati)

**KAMISETA+URTEBETERAKO HARPIDETZA+ALDIZKARI SORTA**



Irabazlea:
PATXI CABO FERNANDEZ
(Antzuola)

## AGko HARPIDEDUNENTZAT SOILIK

Oraindik harpidedun ez bazara, anima zaitez! Tel.: 943 08 10 50

# SARI NAGUSIKO IRABAZLEA:

## ANNE LOPEZ ZUBIA
(Bergara)

**GETARIAKO ASTILLERO JATETXEAN BI PERTSONARENDAKO BAZKARIA**



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena getionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

**GARRAIOAK** > ERREGAIEN IGOERA

# Garraiolariek protestak egingo dituzte bizi duten egoera "jasanezina" salatzeko

**GREBA**
Garraiolarien hainbat elkartek greba orokorra deitu dute gaurko, astelehena

**1,30 EURO**
Gasolio litro bakoitzak 1,30 euro inguru balio du egunotan bailarako gasolindegietan



**DIRU ASKO** Gero gehiago kostatzen du depositua betetzeak; irudian, Luis Gonzalez garraiolaria berea betetzen. M.B.

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
Errepideko garraiolarien egoera "jasangaitza" dela eta, egoera horri aurre egiteko, mobilizazioak egiten hasi dira. Espainian, mugagabeko greba dago deituta gaurtik hasita. Azken urteetan gasolioak izandako igoera izugarriak du horren errua. Egubakoitzean, Arrasateko Mekako gasolindegian, esaterako, 1,279 eurotan zegoen gasolio litro bakoitza. Aurreko egunetan, 1,30 eurotan izatera ere heldu da Debagoieneko gasolindegietan.

Hiru garraiolari autonomoen sindikatuak ez du greba hori deitu, baina aste honetarako mobilizazioak egitea aurreikusi du: hala, gaur, 10:00etan, Jundizko industrialdean protesta bilkura egingo dute, eta 11:00etan, Eusko Jaurlaritza parean, Lakuan. Hiruk argi utzi du ez duela Fenadismer elkarteak deitutako huelgarekin bat egingo.

Sindikatuko idazkari tekniko Esteban Muruamendiaratz bergararrak azaldu du azken bederatzi urteetan gasolioa %200 inguru igo dela. Urte hasieratik hona bakarrik, %30eko igoera izan duela gaineratu du. Hona hemen bergararrak igoera horri emandako zergatia: "Prezioak igotzen badira ere, orain arte erregaiak berdin saldu dira eta beraz, joera garestitzea izan dela. Azkenaldian, aldiz, kontsumoak apur bat jaitsi direnez, prezioek ere joera bera hartu dute.

**GARRAIOLARI MOTAK**
Garraiolarien artean hainbat egoera daudela aipatu du. Hala, nabarmendu nahi izan du ez dela gauza bera atzerritik edo ingurunetik ibiltzea. "Batzuk Alemaniara joaten dira, eta beste batzuk, Bergarara, Oñatira eta, noizean behin, Donostiara. Horien egoera zeharo ezberdina da. Lehenengoendako, kostua oso altua da, eta bigarrenendako, berriz, ez hainbeste", dio Muruamendiaratzek. Horren harira, azpimarratu du Debagoienean garraiolari asko daudela Espainian barrena ibiltzen direnak: "Fagorren edo horrelako enpresetan lan egiten dutenendako, gasolioa bakarrik kostuen %40 da. Kamioiari hilean bost mila litro botatzen dizkion batek 900 euro gehiago gastatu behar du hilero".

Edozein modutan, gaineratu du guztiok eragiten dugun zerbait dela: "Nik neuk autoari gasolioa botatzen diodanean prezioa igo dela konturatzen naiz".

**LITRO BAKOITZA, 1,70 EUROTAN**
Erregaien prezioa, gainera, oraindik gehiago igo behar dela ematen du. Interneten, esaterako, mezu bat dabil egunotan non aipatzen den gasolina litro bakoitza 1,70 eurotara balio izatera hel daitekeela.

Hainbat kasutan, egoera "jasanezina" dela ohartarazi du bergararrak. Ardura, zati batean,, administrazioarena dela dio. Hiruko idazkariak esan du, lehen, prezioak bi edo hirutan igotzen zirela urtero. "Orain, berriz, egunero igotzen da; eta bezeroari ezin diogu egunero esan lan sarien prezioak igotzeko". Bere ustetan, administrazioak lege bat egin behar du, garraioaren ustiaketan gasolioak duen eragina aldizkako egokitzapen automatikoaren gainean, prezioen igoeraren edo jaitsieraren araberakoa.

Espainiako garraiolarien hainbat elkartek deitutako grebaz ere hitz egin du: "Elkarte horien aldarrikapenek ez dute benetako arazoa ukitzen. Zergen jaitsiera eta horrelakoak eskatzen dituzte, eta hori ezinezkoa da. Beraz, ezin ditugu onartu egiten dituzten planteamenduak".

IRITZIAK



**Esteban Casares**
Garraiolaria

"Kontsumitzaile moduan, prezioen igoera asko igarri dut. Egia esan, sekula ez diot prezioari begiratzen; nahiago dut depositua bete eta horri kasu egin barik ordaintzea. Lanean, berriz, Amaral enpresarako egiten dut lan eta berak ordaintzen du gasolioa. Nik erabiltzen dudan kamioiari 250 litro inguru sartzen zaizkio, eta horrek 300 euroko faktura izango dela esan nahi du. Administrazioek neurriak hartu behar dituzte horren aurrean, izan ere, gasolioaren igoerak produktu guztien prezioaren igoera ekarriko du".



**Igor Kortabarria**
Partikularra

"Prezioa asko garestitu da, eta gauzek ezin dute horrela jarraitu. Lur orotariko autoa daukat, eta horren depositua betetzeagatik 75 euro inguru ordaindu behar dut; ibilgailua erosi nuenean, orain dela sei urte, 45 euro jartzen nituen. Beraz, orain 30 bat euro gehiago ordaintzen dut erosi nuenean baino. Administrazioek zerbait egin beharko lukete honen aurrean, horrela ezin dugu-eta jarraitu. Bestela, ez gara iritsiko. Kontua da norbaitek behar duen baino diru gehiago jasotzen duela".



**Pejerto Blanco**
Taxista

"Sektoreari min handia egiten dio igoerak. Lehen, 50 eurorekin depositua betetzen genuen, eta orain, 70 euro behar ditugu gauza bera egiteko. Egoera horren aurrean, lanean ordu gehiago sartzen ari gara, hilabete amaierara lehen bezala heldu ahal izateko. Hamar ordurekin ez badugu behar duguna ateratzen, lan eguna luzatzen dugu, hamabi edo hamalau ordutara. Momentuz, horrek ez dauka beste irtenbiderik. Erakundeek zerbait egin beharrean daude eta egoera bideratzeko neurriak hartu".

**KULTURA** > BODY, MIND & SOUL TALDEA OÑATIN

# Malawitik gure artera etorri dira solasaldi eta konzertua eskainiz

Afrikatik irteten diren lehen aldia izan da; udan Europa osoan kontzertuak emango dituzte eta gure artean ere egon dira, joan den astean, Oñatin



Eguenean, Body, Mind & Soul taldeak egin zuen kontzertuko une bat. PATXI HIPOLITO

**JASONE ZABALA** > OÑATI

Pasa den eguenean Oñatiko gaztelekuan, eta topalekuko egitarauaren barruan, Afrikari buruzko ekitaldi bikoitza antolatu zuten.

Malawiko Mzuzu izeneko hiritik etorritako 18 eta 25 urte bitarteko gazteek osatzen duten Body, Mind & Soul musika taldeak hartu zuen parte ekitaldi honetan. Ekitaldiak bi zati izan zituen. Lehenengo, arratsaldeko seietan, Malawiko euren herrian nolako bizimodua daukaten, beraien kultura eta gizartea nolakoa diren kontatu zien bertaratutako pertsonei; baita zeintzuk diren beraien eguneroko kexak eta arazoak ere. Bertara hurbildu zirenek gazte hauei galderak egiteko aukera izan zuten, eta saioari amaiera emateko afrikar gazteek bost kanta modu akustikoan abestu zituzten. Ondoren, bertara hurbildu zirenei instrumentuak nola egiten ziren azaldu zien.

**MUSIKA KONTZERTUA**

Arratsaldeko zortzietan, Body, Mind & Soul taldekoek kontzertua eskaini zuten. 50 pertsona egon ziren entzuten. Taldea sei kidek osatzen dute, eta hainbat sari irabazi dituzte. Afrikako musika tradizionala, reggaea eta jazza nahasten dituzte beraien kontzertuetan. Eguenean, Malawiko bi hizkuntzatan abestu zuten. Bertara hurbildu zen jendea oso gustura gelditu zen emanaldiarekin.

Body, Mind & Soul-ekoak Afrikatik irteten diren lehen aldia da. Musika zaletasuna duten Afrika hegoaldeko taldeak laguntzen dituen elkarteak (MCSA) antolatutako lehiaketa irabazi zuten, eta Afrika hegoaldeko talderik onena izan zen 2007. urtean. Sari horrek ateak zabaldu zizkien aurtengo udan Europan zehar kontzertuak emateko. Bestak beste, Belgika, Herbehereak, Ingalaterra eta Kroazian emango dituzte kontzertuak. Aste honetan, Zarautzen, Zornotzan eta Eibarren izango dira.

**ELKARTASUNA**

## Mugarik Gabeko Zinemaldia, Linaresekin

Felix Linaresek aurkeztuko du gaur hasiko den zinema zikloa, Arrasaten

**L.K.** > ARRASATE

Elkarhezitzen Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako Lan Taldeak antolatuta, gaur hasiko da I. Mugarik Gabeko Zinema Emanaldia. Hasiera ekitaldirako, Felix Linares ETBko kazetaria gonbidatu dute. Arrasateko Amaia antzokian izango da, 20:00etan. Diktaduren gaineko emanaldi horretan, *Paseo* (Arturo Ruiz Serrano) eta *Madres* (Eduardo Walger) filmak emango dituzte.

**ASTEKO EGITARAUA**

Egunero izango dira film emanaldiak Arrasaten edo Eskoriatzan, eta bakoitza gai jakin baten ingurukoa izango da.

Hala, bihar, martitzena, Kulturaten, 20:00etan, isolamendua landuko dute, *República Banana* (César Peña) eta *Caribeños del Sahara* (Iratxe Perez) filmekin; bukaeran, mahai-ingurua izango da Iratxe Perezekin eta Nubiko kide batekin.

Etzi, Eskoriatzako Ibarraundi museoan, 19:00etan, emakumeen eskubideen gaineko *Nasija* (Guillermo Ríos) eta *Sisters in Law* (Kim Longinotto) filmak emango dituzte, eta Kulturaten, adimen gutxitasunaren gaineko *As de corazones* (Silvia González) eta gutxituek egindako laburrak izango dira, 20:00etan; segidan, mahai-ingurua.

Eguenean, Amaia antzokian, 20:00etan, hezkuntza eta tolerantziaren inguruan, *Hiyab* (Xavi Sala) eta *Puente sobre el Wadi* (Barak eta Tomer Heymann) filmak emango dituzte.

Emanaldi gehiago egongo dira egubakoitzean eta zapatuan.

OMU
KERAMIKAK
zeramika • bainuak
eraikuntzarako materiala
BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43
ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20


**JENDARTEA** > PARTE-HARTZEA

# Politikan parte hartzeko ikastaroa hasiko da bihar

Baketik bake zentroak antolatu du ikastaroa, Foru Aldundiaren ekimenez, eta hiru egunekoa izango da; izenematea zabalik dago

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Egoitza Arantzazun duen Baketik bake zentroak bi ekintza hartuko ditu datozen egunotan.

Batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak politika publikoan gizarte parte-hartzea sustatzeko helburuaz ikastaro programa berri bat jarri du martxan, eta Baketik da antolatzailea, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin. Ikastaro horietako bat Arrasaten emango dute, bihar, etzi eta eguenean, Kulturaten, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroa doan da eta, izena emateko, nahikoa da Baketik-ekin kontaktuan jartzea 943 25 10 05 telefonoan, *partehartu@baketik.org*-era idatziaz edo *www.baketik.org* webgunean.

**EGUN BAKOITZEAN, GAI BAT**

Programa hori Gipuzkoako herritar guztiei eskaintzen zaie eta, bereziki, "hazi nahi duten pertsonei", gizarte-erakundeetan parte hartu edo gai publikoetan interesa duten herritarrei.

Oinarri eta abiapuntua galdera bat da: zergatik hartu behar dut parte gai publikoetan eta eurez arduratu? Baketik erakundeak honela erantzuten du: "Parte-hartzea bizikidetzako eredu demokratikoari benetakotasuna ematea eta gauzatzea da, etika soziala garatzea eta gure baitako gizakiak eta bere harremanetarako gaitasunak dituen beharrak erantzukizunez betetzea".

Kurtsoak modulutan banatuta daude. Lehen moduluak gizarte parte-hartzeari buruzko teoria eta gogoetak biltzen ditu; bigarrenak esperientzia mapa bat eta gizarte parte-hartze aukerak bilduko ditu; eta, azkenik, hirugarren egunean gizarte parte-hartzeari buruzko eta gatazken moldaketari buruzko proposamen tailer bat egingo da. Ikastaroa Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek eta gizarte erakundeetan eskarmentu handiko pertsonek emango dute.

**AFRIKAREN ASTEA**

Baketik-en eskutik ere, Tau Fundazioarekin elkarlanean, Arantzazun II. Afrikari Buruzko Astea egingo dute, gaur, astelehena, hasi eta hilaren 15a arte.

Batetik, 18:00etatik 20:00etara, *Afrikako errealitatearen gakoa eta proposamenak* izenburua duen ikastaroa egongo da, Mbuyi Kabunda irakaslearen eskutik. Espainiako afrikanista onenetakoak izango dira irakasle.

Asteburuan, berriz, jarduera sozialak antolatuko dira. Zapatuan, mahai-ingurua egongo da Mbuyi Kabunda eta Carluccio Gianninirekin; ondoren, herri-bazkaria. Arratsaldean, berriz, bisita gidatuak eta bi dokumentalen emanaldia izango dira. Domekan, mendi-ibilaldia egongo da Arantzazu ingurutik; amaitzeko, Black Percussion taldeak emanaldia eskainiko du.

Asteburu guztian zehar, santutegi inguruan zenbait Gobernuz Kanpoko Erakundek (GKE) ekoiztutako *Afrikarrendako Albuma* argazki erakusketa egongo da ikusgai.

Afrikaren gaineko ekintza horietan parte hartzeko ere, Baketik-en 943 25 10 05 zenbakira deitu edo *arantzazu@baketik.org*-era idatzi behar da. Matrikula 30 euro da; 10, egun solteetan.

**TURISMOA** > ARRIKRUTZ

# Ireki zenetik, gaur dela urte bete, 25.000 bisitari inguru izan ditu Arrikrutzek

Bisitari gehienak, ia 2.000, Oñati ez beste Debagoieneko herrietakoak etorri dira; beste 1.000 Oñatikoak izan dira

**L.K.** > OÑATI

Ireki zenetik, gaur urte bete dela, 24.501 bisitari izan ditu Arrikrutzeko kobak, horietatik 7.709, aurten. Bisitari gehienak, 1.954, ibarreko beste herrietakoak izan dira, eta beste 1.000, Oñatikoak; horiez gain, Euskal Herrikoak, Espainiakoak, Frantziakoak, Ingalaterrakoak, Belgikakoak, Australiakoak… ere izan ditu. Datu horiek jakinarazi ditu Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak.

Bisitariek egindako balorazioaren emaitzak ere jakinarazi ditu. Horien arabera, gehienek (%26,89) egunkarietan jaso zuten koben gaineko informazioa. Bisitaren gainean galdetuta, gidaria da ondoen baloratutakoa: %76k oso ondo baloratu dute, eta %24k, ondo. Iraupena da ondoen baloratutako bigarren alderdia: %76k oso ondo dagoela esan dute, %23k, ondo, eta %1ek, gaizki (motzegia dela esanez); %60k esan dute ordainsaria egokia edo ona dela. Onespen txikiagoa izan dute gidoiak (%47k esan du oso ondo dagoela, eta %52k, ondo), soinuak (%43k esan du oso ondo dagoela, eta %55ek, ondo) eta argiztapenak (%52k, oso ondo, eta %48k, ondo). Berriz bisitatuko luketen galdetuta, bisitarien %87k baietz erantzun du. Bestalde, koba ireki zen urtean, Oñatiko turismo bulegoak 20.293 bisitari jaso zituen, lehenengo aldiz 20.000ko marka gaindituz, eta, 2008ko datuen arabera, aurreko urteko bisitarien kopurua %9,40 hazi da.

**MUGARIK GABEKO LURPEA**

Arrikrutz-Oñatiko Kobak proiektuaren lehen urteko balorazio positiboa egin du agentziak, eta aurrera begira, hainbat proiektutan lanean jarraituko duela esan du, besteak beste, Mugarik Gabeko Lurpea proiektua, beste koba batzuekin senidetzen duena Arrikrutz.

**EKONOMIA** > ENPRESAK

# Mondragon Taldeko hiru enpresak hartu dute parte Expoko eraikuntza lanetan

Expoko 15 proiektu baino gehiagotan parte hartu dute, tartean, erakustaldiko garrantzitsuenetako batzuetan

**L.K.** > OÑATI

Mondragon kooperatiba taldeko hiru kidek, Ulma Eraikuntzak, Urssak eta Oronak, hartu dute parte egubakoitzean Zaragozan irekiko duten Expo 2008 erakustaldiko hainbat azpiegitura eraikitzen; azpiegitura garrantzitsuenetako batzuk, gainera. Horrela dio maiatzeko *TU Lankide* aldizkariak. Expoak uraren egoeraz kontzientziatu nahi du, eta hiru hilabetez egongo da zabalik.

Oñatiko Ulma Eraikuntza enpresak izan du parte-hartze handiena. Hain zuzen, Expoko 15 proiektutik goratan esku hartu du, tartean, Uraren Dorrea, Aragoiren pabilioia, Espainia Pabilioia, Parte-hartzaileen gunea, Kongresu Jauregia, Uraren Parke Metropolitarra… Horiek erakustaldiko eraikin garrantzitsuenetariko batzuk dira. Bestalde, Ebroko Noria deitzen den sarbidea ere Ulmak egin du, hau da, Ebro ibaia beti maila berean edukiko duen presa bat. Horren bidez, Expotik Pilarearen Basilikara arte Ebron nabigatzeko aukera egongo da.

**SARRERA NAGUSIA, URSSAK**

Urssa enpresak, bestalde, Expoko egitura ikusgarri bat egin du: Zubi Pabilioia. Expoko sarrera nagusia izango da eraikin horizontal hori: Ebro ibai gainean luzatzen den ezpata-lore bat irudikatzen du; 270 metro luze da eta 67.500 piezak osatzen dute. Dragados eta Urssak osatutako aldi baterako enpresa elkarteak eraiki du, eta 6.500 altzairu tona erabili dituzte horretarako.

Azkenik, Oronak igogailuz hornitu ditu Expoko hiru eraikin: batetik, Espainiaren pabilioian hiru M33 igogailu –Oronak dituen aurreratuenak– eta jasogailu bat ipini ditu; telekabinaren geltokirako beste igogailu bat egin du, eta Ebroko klub nautiko berriaren eraikinerako bi igogailu erdipanoramiko ipini ditu Oronak.



Mikel Garagorrik (Andoain, 1934), duela 25 urte sortu zuen Debagoieneko Gurutze Gorria, hain zuzen, 1983ko uztailaren 14an inauguratu zuten Elorregi auzoko egoitza. Egunez alde batera utziak ditu boluntario lanak, baina gertutik jarraitzen du elkartearen egoera, eta horregatik boluntarioen beharraz egin digu berba ondorengo lerroetan.

**Mikel Garagorri** > Debagoieneko Gurutze Gorriaren sortzailea

# "Zalantza barik, boluntarioen esku dago Gurutze Gorriaren etorkizuna"

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Andoainen jaio arren, Bergarara ezkondu zen Mikel Garagorri, eta Gurutze Gorririk ez zegoela ikusi zuenean, zerbitzua martxan jartzea erabaki zuen. Arrasateko Udaleko atea jo zuen lehenik. 25 urte hauen laburpena egin digu.**

**Nolakoa izan zen Debagoieneko Gurutze Gorriaren hasiera?**

Hasiera guztiak bezala, nahiko zaila izan zen. Ibarrean halako zerbitzu baten beharra zegoela ikusi nuen. 1982. urtean, Jose Antoni Ardantza Arrasateko alkate zela, ospitalearen parean zegoen eraikin bat utzi zigun. Hura izan zen lehen egoitza, baina egoera txarrean zegoen. Ondoren, ospitalean bertan egon ginen beste urte batez.

Bitartean, Elorregin zegoen zentrala toki egokia izan zitekeela pentsatu nuen, besteak beste, anbulantziek irteera egokia zutelako. Eraikina, Zerrajerarena zen, eta haiekin berba eginda, etxea konpontzeko lanak hasi genituen.

Egun asko emango nituen egoitza konpontzen. Hain zuzen, 25 bat domeka egon nintzen. Gurutze Gorriaren egoitza konpontzeko milioi bat pezeta gastatu genituen materiala erosteko, eta barruko lan guztiak taldean egin genituen. Inaugurazioa, 1983. urteko uztailaren 14an egin genuen, eta Gurutze Gorriaren ordezkari piloa elkartu ginen.

**Zein izan zen hurrengo pausua?**

Elorregi toki estrategikoa da; nik esango nuke ibarreko tokirik esanguratsuena dela, ibarreko hiru herririk handienak oso gertu daude-eta; gainera, bertatik auto asko pasatzen dira. Eraikinean gurutze gorria margotuta ikusi zutenean hasi ziren konturatzen bertan zein zerbitzu ematen genuen. Hala, poliki-poliki boluntarioak agertzen hasi ziren. Ni nintzen Debagoieneko Gurutze Gorriko presidentea, baina, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran arduradun bana geneukan. Kontu egin behar da 70.000 lagunei ematen geniela zerbitzua hasi ginenean, Leintz Gatzagatik hasi eta Elgetaraino.

**Horrenbeste biztanleri zerbitzu emateko, anbulantzia bakarra zenuten.**

Bai. Gainera, San Prudentzion eduki genuen lehen anbulantzia, bigarren eskukoa zen, eta egundoko kolpea zuen atean. Donostiako Gurutze Gorriak saldu zigun, 2.300.000 pezetan truke. Izugarrizko dirutza zen, duela 25 urte, eta konpontzeko ere, diru mordoa gastatu genuen. Hasieran, dirulaguntza gutxi jaso genuen erakundeen aldetik. Debagoieneko Gurutze Gorriko presidente egon naizen urteotan, ez dut ibarreko Udaletako zinegotzien bisitarik jaso egoitzan. Udaletara laguntza eske joaten ginenean, ez ziguten jaramonik egiten, eta beste Udal batera joateko esaten ziguten. Hasierako urteetan, loteria, saltzen genuen, eta ondo gainera. Salmetarekin jasotzen genuen dirua erabiltzen genuen elkarteak zituen gastuak ordaintzeko.

**Lehenengo boluntarioak soldadutza egiten egon ziren gazte taldetik irten ziren.**

Bai, hala da. Zerbitzua ematen hasi ginenean, soldadutza egiten zuten mutilak hartzen hasi ginen, eta lehen promozioan 21 mutil egon ziren, zazpiko hiru txandatan banatuta. Harrera oso ona izan zuen gazteen artean, izan ere, askok etxetik oso gertu egin zuten-eta soldadutza. Urte asko pasa dira, baina egun boluntario moduan dabiltzan batzuk, soldadutza San Prudentzion egin zuten. Ikastaroak ere antolatu genituen, eta neskak ere animatu ziren parte hartzera.

**Nolakoa da egungo egoera Debagoieneko Gurutze Gorrian?**

Boluntario aldetik nahiko eskas dabiltza, 68 bat daude-eta, eta horrenbeste orduko zerbitzua emateko, ez da nahikoa. Bestalde, bederatzi lagun daude soldata kobratzen, gehienak anbulantzien gidariak eta laguntzaileak. Beraz, esan daiteke, boluntario gutxi dagoela.

Anbulantziei dagokionez, lau daude San Prudentzion, eta laster ekarriko dute anbulantzia medikalizatua. Foru Aldundia arduratzen den anbulantziez, baina inguruko enpresaren batek laguntza ematen duenean, material berria erosteko aprobetxatzen dugu.

**Zuk duela bost urte utzi zenuen Gurutze Gorria. Zergatik?**

Hain zuen, ikusi nuenean boluntario izaera galtzen hasi zela. Gidariak eta laguntzaileak kobratzen hasi zirenean, Gurutze Gorria sortu nueneko filosofia galtzen hasi zela ikusi nuen, eta uztea erabaki nuen. Horrelako zerbitzuek martxa ona izan dezaten, guztiok izan beharko genuke boluntario. Teoria oso erraza da: geroz eta boluntario gehiago badago, askoz gutxiago egiten du lan pertsona bakoitzak. Ostera, praktikan jartzea izaten da zailagoa.

**Boluntarioen kopurua handitzeko zer egin daiteke?**

Ikastaroak eman behar dira. Gurutze Gorria sortu nuenean, herri guztietan boluntario izaten ikasteko ikastaroak ematen ahalegindu nintzen. Baina, ez zen posible izan, eta horrek ematen dit pena gehien. Asko borrokatu dut politikariekin gai honen inguruan, baina kontzientziazioa falta da. Gizarteak boluntarioak behar ditu ondo ibiltzeko. Eta Gurutze Gorria bezalako elkarteen etorkizuna boluntarioen esku dago, hein handi batean.




Mikel Garagorri, San Prudentziko Gurutze Gorriaren egoitzan. MIREIA BIKUÑA

ANBULANTZIA

**"Erosi genuen lehen anbulantzia bigarren eskukoa zen, eta egundoko kolpea zuen atean"**

SOLDADUTZA

**"Urruti joan barik, ibarreko mutilek aukera izan zuten soldadutza Gurutze Gorrian egiteko"**

IKASTAROAK

**"Boluntario kopurua handitzeko ikastaroak egin behar dira, txikitatik erakusteko zer den boluntario bat"**

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> Arrasate Musikalen matrikula egin daiteke**
Arrasate Musikal eskolak zabalik dauka matrikulazio epea, ekainaren 20a arte. Horretarako, Monterron jauregira jo behar da astelehenetik eguenera, 17:00etatik 20:00etara. Ikasgaiak hauek dira: balleta, musika tailerra, hezkuntza berezia, hizkuntza musikala gazte eta helduendako, musika instrumentuak eta taldeak.

ARETXABALETA
**> Sahararen aldeko dantzaldia eta bingoa**
Sahararen aldeko dantzaldia eta bingoa antolatu dute Iesbaa eta Jaiki elkarteek egubakoitzerako, Durana kalean, 18:00etatik 20:30era. Dantza egiptiarrak, ekialdekoak eta Saharakoak egingo dituzte, eta segidan, bingoan jokatzeko aukera egongo da.

ESKORIATZA
**> Mendekotasunaren gaineko ikastaroa**
*Zure nagusiak maite dituzunez, hobeto zaintzen ikasi* delako ikastaroa emango dute Ibarraundi museoan ekainaren 16tik 20ra, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako departamentuak antolatuta. Izena emateko edo informazio gehiagorako, Udaleko gizarte zerbitzuetara jo behar da.

ANTZUOLA
**> Erretiratuek Lekeitiora bidaiatuko dute**
Landatxope erretiratuen egoitzakoak Lekeitiora joango dira hilaren 18an, egun osorako. Bidean, hamarretakoa egingo dute. Lekeition, kontserbalantegi bat bisitatuko dute, Egaña jatetxean bazkalduko dute, eta arratsaldea libre hartuko dute. 28 euro da, eta izenematea eguazten eta eguenean egin daiteke, 18:00etatik 19:00etara.

ARRASATE
**> Udarako, bi ikastaro trinko dago AEK-n**
Udarako, bi euskara ikastaro trinko antolatu ditu AEK euskaltegiak, 16 urtetik gorakoendako. Uztailean eta irailean izango dira, hilabete bakoitzean hiru astean, egunero hiru orduan. Argibide gehiago, 943 77 03 69 telefonoan edo *arrasate@aek.org* posta elektronikoan.

BERGARA
**> Bertso afaria egingo dute Osintxun, eta txartelak salgai daude eguaztena arte**
Datorren zapatuan, hilak 14, bertso afaria egingo dute Osintxuko frontoian, Xabi Paia eta Andoni Egañarekin, eta txartelak salgai daude Osintxuko tabernetan eta dendan, 28 eurotan. Egun osoan izango dira ekintzak: 07:'00etan, mendi irteera; eguerdian, bazkaria (izenematea Txuringon da), eta 20:00etan, triki-poteoa.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> 1958an jaiotakoek ospakizuna izango dute**
1958an jaiotako arrasatearrek kinto ospakizuna egingo dute azaroaren 8an, Baster-Alde jatetxean. Parte hartzeko, 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0001 57 0010112788.

OÑATI
**> 1964an jaiotakoek bazkaria izango dute**
1964an jaiotako oñatiarrek batera bazkaltzeko aukera dute uztailaren 19an, Etxe Aundi jatetxean; aurretik, 13:00etan, poteoa egingo dute. Izena emateko, sartu 30 euro Euskadiko kutxako 3035 0005 36 0050044096 kontuan. Uztailaren 15a da muga-eguna.

ANTZUOLA
**> 1967 eta 1968an jaiotakoen ospakizuna**
1967an eta 1968an jaiotako antzuolarrek batera afaltzeko aukera izango dute hilaren 28an Ongi Etorri jatetxean. Izena emateko, deitu 600 67 66 01 telefonora (Iñigo) edo joan Aixa frutategira edo Peli okela dendara.

BERGARA
**> Udal Euskaltegiaren 25. urteurren afaria**
Udal Euskaltegiak afaria antolatu du ekainaren 20rako, Zabalotegiko frontoian, 25. urteurrena ospatzeko, eta inoiz euskaltegiarekin loturaren bat izan duten guztiak daude gonbidatuta. Txartelak euskaltegian bertan edo 943 76 44 53 telefonora deituta lor daitezke.

BERGARA
**> Mariaren Lagundiko zozketako irabazlea**
Zumaiako Zelai talasoterapia zentroan bi pertsonarentzat bazkaria, zirkuitua eta masajearen zozketako zenbaki saritua 0987 da. Irabazlea jar dadila harremanetan Mariaren Lagundia ikastolarekin.

BERGARA
**> Musika eskolan matrikula egiteko aukera**
Musika eskolak ekainaren 15era arte dauka zabalik datorren ikasturterako matrikula egiteko epea. 3 urtetik aurrerakoek egin dezakete, eta hainbat aukera daude: biolina, aurre-hizkuntza eta hizkuntza musikala, musika-tresnak…

## etxeko leihotik



**Oihane Agirre** > GOITBko programazio zuzendaria

# Zinea berriro ere protagonista ibarrean

Mugarik Gabeko Zine Mostra antolatu du Elkarhezitzen lantaldeak aste honetarako. Gaur hasi eta sei egunetan, kalitatezko zinea ikusteko aukera izango dugu; film luzeak eta laburrak, dokumentalak, fikzioa, animazioa. Kalitatezko egitarau erakargarria osatu dute, eta bereziki lan bikaina egin du Otavio Mattiazok. Filmak jomuga hartuta, egunero gai bat jarriko dute mahai gainean (diktadura, elkartasuna, hezkuntza, emakumeen eskubideak...) eta eztabaida saioak egingo dituzte filmetako zuzendariekin, gobernuz kanpoko erakundeetako kideekin eta hainbat adituerekin. Ariketa ona da, ibarreko gobernuz kanpoko erakundeek proposatzen digutena. Helburua ez da ikusleak gaizki sentiaraztea, informazioa zabaltzea baizik. Hainbat errealitate ezagutzeko oztopoak izaten ditugu: aurreiritziak, manipulatutako informazioa, kontzeptu faltsuak... Filmen eta eztabaida saio bitartez hainbat errealitateren informazio zuzena eskuratzeko aukera eskaintzen digute. Emanaldiak Kulturaten, Amaia antzokian eta Ibarraundi museoan dira. Gonbita luzatu digute, aprobetxatzen jakingo ote dugu?

**"Helburua ez da ikusleak gaizki sentiaraztea, informazioa zabaltzea baizik"**

**> Felix Linares** gonbidatu dute mostraren aurkezpenera. Hainbat osasun arazo tarteko, antolatzaileak ezin izan digute ziurtatu etorriko denik. Gaur bertan, 20:00etan Amaia antzokian da hitzordua.

**> Tindouf** hiriko errefuxiatuen kanpamenduetatik hamabi haur etortzekoak dira. Hauek ere ez dakit etorri ahal izango diren, izan ere gastuei aurre egiteko ez dute nahikoa laguntza jaso.

## debagoiendarrak kanpoan

**Ane Zabala** > Arrasate

# "Euskal Herrian laguntasunaren kontzeptua askoz garrantzitsuagoa da"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Ane Zabala (Arrasate, 1982) Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua da. Egun, Bartzelonako publizitate agentzia batean egiten du lan. Zinema, irakurketa, txoko ezberdinak ezagutzea eta musika emanaldiak ikustea ditu zaletasun. Gustura dabil Bartzelona aldean.**

**Noiz joan zinen Bartzelonara?**
Orain dela hiru urte etorri nintzen. Etxebizitzen prezioa, bai alokatzeko zein erosteko orduan oso garestia denez, ez naiz Bartzelonan bertan bizi, Sabadellen bizi naiz. 20 bat kilometrotara dago eta 200.000 pertsona inguru bizi dira.
Egunero joaten naiz Bartzelonara, lana berton egiten baitut. Trenez joaten naiz, autoz joatea zoramena delako. Goizero izugarrizko auto ilarak sortzen dira.

**Zer dela-eta amaitu duzu Bartzelonan?**
Mutil laguna hemengoa da. Bestalde. lanerako aukera gehiago egongo zela pentsatuz etorri nintzen. Eta hala da, lan aukera asko dago hemen. Hala ere, oso gaizki ordaintzen dute.

**Nongo bizimodua duzu gustukoago, hangoa ala hemengoa?**
Oso desberdinak dira. Euskal Herrian bizi kalitate handiagoa dago, eta baita lasaitasun gehiago ere. Gainera, Euskal Herriko paisaia askoz politagoa da eta janaria, askoz hobea. Kultura aldetik, ordea, Bartzelonan beti dago zer egin, zer ikusi. Nahi duzuna egin dezakezu. Bestalde, jendearen artean aniztasuna da nagusi, kaletik denetariko jendea ikus dezakezu.



ANE ZABALA

**Familiaren hutsunea**
Sabadellen daraman bizimoduaz ez da batere kexatzen, baina familia asko botatzen du faltan Zabalak.

**Nola jartzen zara harremanetan hemengo zure jendearekin?**
Familiarekin, normalean, telefonoz edo e-postaz, eta lagunekin internet bidez. Blog bat sortu genuen, lagunen berri izateko bitarteko ezin hobea da.

**Ba al duzu Arrasatera bueltatzeko asmorik?**
Oraingoz ez, baina epe luze batera begira, bueltatzeko asmoak dauzkat. Ezin dezaket esan zehazki noiz bueltatuko naizen, baina ez dut nire burua Bartzelonan betirako bizitzen ikusten.

**Nolakoa da hango jendea? Zein ezberdintasun dauka hemengo jendearekiko?**
Irekiagoak dira eta oso lagun onak egin ditut. Hala ere, egia esan behar bada, ez naiz egunero jende berarekin egoten, hau da, ez dago Euskal Herrian dagoen koadrila zentzu hori. Lagun asko dituzu, baina onean eta txarrean dauden horietako gutxi. Euskal Herrian laguntasunaren kontzeptua askoz garrantzitsuagoa da.

**Zein alde on ditu Bartzelonak? Eta alde txarrak?**
Lan gehiago dago, kulturalki anitzagoa da, jende desberdin asko ezagutzen duzu... Bestalde, jendea beti dabil urduri, trafiko handia dago eta dena dago oso garesti.

**Zerbait gaineratzerik nahi?**
Katalanen asmakizun onena "Pa amb tomàquet"-a dela. Izugarri ona dago, benetan. Ogiari beti gehitu beharko genizkioke tomatea eta olioa.

## kale inkesta

# Hastear da hondartza denboraldia Gipuzkoan; irrikarik baduzu joateko?



**Joxe Arrieta**
Erretiratua
Bergara

Irrika handirik ez dugu oraindik; biloba zaindu behar dugu gainera. Gogoa dugu, batez ere, eguraldi ona hasteko, izoztuta gaude eta. Dena dela, aurrerago joango gara hondartzara. Etxea dugu Oriñonen.



**Gotzon Arzelus**
Langilea
Bergara

Oraindik ez naiz hondartzara joan, depilatu gabe nago-eta (kar-kar). Ez, eguraldi honekin zaila dago, eta badugu gogoa hobera egin dezan. Eta hondartzara joateko ere asko. Zarautzekora joaten gara, egunpasa.



**Cecilia Dulanto**
Ikaslea
Bergara

Izugarrizko gogoa daukat hondartzara joateko. Espero dut laster hasiko dela eguraldi ona. Zarautzera joaten gara gehienetan. Lagunekin joaten ez didate uzten, baina lehengusina dut han eta berarekin joaten naiz.



**Mari Carmen Heras**
Langilea
Bergara

Eguzkia ikusteko daukat gogo gehiago hondartzara joateko baino. Baina joaten gara, bai. Normalean Debara, baina aurten aparkalekuan lanean ari dira, eta beste norabait joan beharko dugu.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

## goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Karabanek eta furgonetek Bergara hartu zutenekoa**

Mundumira Bergarara ekartzea "ondo" iruditzen zaiola, baina antolaketaren alderdi batekin hain gustura ez dagoela dio bergarar batek: "Aste bukaera osoan, erdiguneko eta ez hain erdiguneko kaleetan, karabana eta furgoneta inbasio bat izan dugu. Badakit egon dela karabanendako egokitutako aparkaleku bat, baina badirudi ez dutela oso ondo aurreikusi zenbat etorriko ziren".

BERGARA
**> Arroz plater bat, zortzi eurotan**

Mundumirarekin jarraituz, jaialdian ibili diren debagoiendar batzuek "jaia, polita, baina dena oso-oso garestia" egon dela kexatu dira: "Zuku bat erosi genuen, oso goxoa, baina hiru euro kobratu zigutena; eta arroz eta barazki apur bateko plater bat, zortzi euro! Jaia herrikoia baldin bada, prezioek ere herrikoiak izan beharko lukete, ala?"

OÑATI
**> Deskoordinatutako semaforoak**

Oñatiko gidari batek semaforo batzuekin gertatu zaiona komentatu digu: "Herri sarreran dagoen biribil inguruan, botoiari sakatzerakoan bakarrik gorri jartzen den semaforo bat dago; metro batzuetara, halako beste bat. Dagoeneko behin baino gehiagotan gertatu zait bat ireki eta bigarrena oraindik gorriz egotea. Horrela, oso metro gutxian, bi aldiz gelditu beharra dago".

## usteak uste

**Julen Iriondo**

# Lanbide Hastapena

Eta oraingoan ere erdi ustel. Lagun batek esaten du supermerkatu jakin bateko sagarrengatik: "Kanpotik oso itxura ona, baina gero gusturik ez". Alderantziz gertatzen da, esaterako, zenbait gaztarekin: kanpotik itxura txarra, baina gustura asko jaten du hainbat jendek.

Hau diot zeren Arrasateko Lanbide Hastapenerako eskola ezagutzeko aukera izan dut astean: *tonto-eskola* deitzen diote batzuk, baina ikusi egin behar da egiten duten zerbitzu soziala; ikasle eta etorkizuneko langile moduan, baina batez ere pertsona gisa, hara doazenei barruan duten onena ateratzea lortzen dute gehienetan. Azkenean tonto, listo usteko asko! Ikusi bestela gaur, astelehena, Goiena Telebistako erreportajean.

## zorroztailea



**Elena Laka**

# Gai beraren gaineko bariazioak

"Obama eta Clinton (…) isilpean elkartu dira Washingtonen etorkizunaz berba egiteko. Zalantza barik, bere bizitzako egunik zirraragarri eta zoriontsuenetariko bat izan den horren ondoren, Barack Obamak asteburua libre hartzea erabaki du, emazte Michelle afaltzera eramateko, eta bere bi alabekin bizikletan ibiltzera joateko".

El Pais, 2008-06-07



Beltz bat eta emakume bat norgehiagokan demokraten hautagaitza lortu nahian, Ameriketako Estatu Batuetako lehendakaritzarako. Tradizioz, boteretik kanpoko bi, presidente izateko lehian. Beltza, duela berrogeita hamairu urte oraindik autobusean zuriei tokia laga behar ziena. Emakumea, duela hirurogeita zortzi urte arte botorik ere eman ezin zuena. Bi kasuetan, berritasun itxaropentsua guztiontzat, inperioak katarroa harrapatzen duenean, guztiok eztulka hasten garelako.

Laburra, baina, zoriona behartsuaren etxean. Arraza eta generoaren arteko berdintasunean urratsa emanda zegoelakoan geundenean, Espainiako progresiaren egunkaririk serioenak dioskun Obamak bere andrea afaltzera "eramateko" hartu duela asteburua libre. Txakurra bailitzan, "eraman". Obama eta Michelle ez doaz elkarrekin afaltzera, ez, andreak senarra behar du afaltzera "eraman" dezan. Txatxarra aurrerapausoa.

> **"Obamak asteburua libre hartu zuen andrea afaltzera 'eramateko"**
>
> **"Lagun bati galdetu zioten gizonak etxeko lanetan laguntzen zion"**

Moskeoa oraindik pasatzeke, banoa zapatuko periodikoan aurrera, eta Cristina Garmendia Zapateroren ministro donostiarrari egindako elkarrizketarekin egiten dut topo. "Seme-alabek eta senarrak nola hartu dute zu ministro izatea?" "Lortzen duzu familia eta lana bateratzea?" Zergatik ez dut irakurri sekula Moratinosen andreak zer irizten dion gizona ministro izateari? Noiz galdetu diote Felipe Borboiari nola uztartzen dituen alaben zaintza eta lana?

Arnasa hartu du irakurleak, eta pentsatu du, kontsolamenduz, beste mundu batean bizi dela. Behintzat afaltzera joateko ez daukala inork atera beharrik, eta lanean ere sekula ez diotela galdetu familia eta lanaren arteko bateratzeaz. Arnasa txikia, baina, zeren, egunkaritik burua altxa, eta lagun neska batek kontatu dio joan zen egunean telefonozko inkesta batean galdetu ziotela ea gizonak etxeko lanetan laguntzen zion. Eta hori vascas y vascos" esapideaz bandera egin duen agintariaren menpeko erakundearen inkestan. Inguratuta gaude.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Julen Iriondo, Irati Agirreazaldegi, Jon Berezibar **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria




**> ARRASATE**
Arrasate Musikal Gazte Orkestrako zuzendariari elkarrizketa **> 10**





**> BERGARA**
Kristo Obrero eta San Antonio kaleetako urbanizazio lanak **> 11**





**> ARETXABALETA**
Frankismo garaiko idatzia estali dute Bedarretako San Migelen **> 13**




**ZINTA** Iñaxio Garro Aretxabaletako alkateak eta Maria Jesus Aranburu Kultura diputatuak moztu zuten zinta Udal ordezkariak eta herriko taldeetako kideak Arkupen zirela. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** > KULTURA ETXE BERRIAREN INAUGURAZIOA

# Arkupe, kulturari babesa emango dion aterpea herriarendako zabalik

**INAUGURAZIOA**
Herriko taldeetako kideak Udaleko eta diputazioko ordezkariekin izan ziren

**UDA OSTEAN**
Erakusketa gela, Zaraia aretoa eta liburutegia gertu daude, irailean egongo dira besteak


**I. AGIRREAZALDEGI / M. ALTUBE** >
ARETXABALETA


Arkupe, Aretxabaletako kultura etxe berria, inauguratu zuten egubakoitzean. Ekitaldian izan ziren herriko agintariak, Inaxio Garro alkatea buru zutela, eta Foru Aldunditik Maria Jesus Aranburu Kultura diputatua; baita aurreko agintaldiko udalbatza ere. Bestalde, Arkupen ez ziren falta herriko elkarteetako ordezkariak: Leizarra musika eskolakoak, ikastetxeetakoak, kultura taldeetakoak, Okilakoak eta Akordeoi Orkestrakoak besteak beste...

Inaxio Garrok eta Maria Jesus Aranburuk inaugurazio zinta moztu ostean, herriko dantzariek aurreskua egin zuten eta ekitaldia hasi zen ondoren Gorka Etxaberen gidaritzapean.

Inaxio Garrok hartu zuen hitza lehenengo aretxabaletarrei dei eginez Arkupe erabiltzeko: "Samurrena egin dugu, eraikina bera egitea. Orain dator benetako lana, herritarrak erakartzea eta denak elkartzea adin, ideologia eta sexu ezberdinekoak. Aniztasuna bultzatu gura dugu eta herritarren eta herriko taldeen ekarpenak ezinbestekoak izango dira; gertutasuna izango da giltzarria. Hemendik aurrera erronka latzak izango ditu kulturak, eta gure nortasuna eta kultura propioaren alde egitea eta bultzatzea dagokigu", esan zuen.

Maria Jesus Aranburuk ere bat egin zuen esatean, "kultura etxea bizirik mantendu behar da orain, herritarren egitasmoak gauzatuz. Ez dadila bakarrik Udalaren asmoak betetzeko izan. Aldundiak programazioetan laguntzen du sare baten bidez baina horretarako bi baldintza ipintzen ditugu: Eraikina kudeatuko dutenek ilusioa izatea eta herritarrek parte hartzea. Eraikina ez dadila izan bakarrik musika ikasteko eta liburuak kontsultatzeko, hori baino gehiago izan behar du".

**LIBURUTEGIA ASTE HONETAN**

Peio Ramirezen eta Juantxo Zeberioren musikak, lehengo kultura etxetik oraingorako ibilbidea azaltzen zuen ikus-entzunezkoak eta Anjel Alkainen ikuskizunak osatu zuten ekitaldia, eta eraikinean bisita egin zuten gero.

Asteon liburutegia ipiniko dute abian, erakusketa gela martxan da eta Zaraia aretoan hainbat kontzertu eta ekitaldi izango dira. Gainerakoak, musika eskola eta gazte lekua esaterako irailean hasiko dira funtzionatzen.

ESALDIAK

**"Aniztasuna bultzatu gura dugu eta ezinbestekoak izango dira herritarren eta herriko taldeen ekarpenak"**

**Iñaxio Garro** > Aretxabaletako alkatea

**"Kultura etxea bizirik mantendu behar da , herritarren egitasmoak gauzatuz ez Udalaren asmoak bakarrik"**

**M. Jesus Aranburu** > Kultura diputatua

## Arkupeko kultura jarduerak

**Ekainak 6-22**
Artiumen eskutik erakusketa: Euskal Herriko artista garaikideen obrak

**Ekainak 10, martitzena**
19:15 Leizarra musika eskolako txistu eta flauta ikasle eta irakasleak

**Ekainak 11, eguaztena**
18:00 Maite Francoren ipuin kontaketa: *Halabazango ipuinak*, liburutegian
19:00 Zaraia aretoan, Leizarra musika eskolakoen dantza saioa

**Ekainak 12, eguena**
19:00 Leizarrako talde instrumentala eta abesbatza

**Ekainak 13, egubakoitza**
17:00-20:00 Funky eta Hip Hop ikastaroa
22:00 Akordeoi Orkestra

**Ekainak 19, eguena**
19:00 *Etiopia oinez* diaporama Asier Arantzabalekin eta Mila Gallastegirekin.

**Domentx Uzin** > Arrasate Musikal Gazte Orkestrako zuzendaria

# "Datorren urtean beste musika tresna batzuk sartu nahi ditugu"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Arrasate Musikaleko Orkestra Gaztearendako ikasturte amaiera kontzertuz beteriko garaia izaten da. Azken kontzertua pasa den egubakoitzean eskaini zuten, Arrasateko Parrokian. Harribitxi hauek zuzentzen dituen pertsonarekin izan gara, Domentx Uzinekin, alegia. Ikasturte amaierako emanaldiez gain, datorren urterako proiektu berriaren inguruan jardun dugu berarekin.**

**Nola joan zen pasa den egubakoitzeko emanaldia?**

Kontzertua oso ondo egon zen. Jo genituen kantak oso ezagunak dira eta horrek asko laguntzen du. Gainera, elizetako akustika oso ona izaten denez, oso soinu ona lortu genuen.

**45 minutu. Hori izan ohi da, gutxi gorabehera, zuen emanaldien iraupena. Nola banatzen dituzue emanaldiak?**

Gazte Orkestraren emanaldiak bitan banatzen ditugu normalean. Lehenik, biolin bikotea eta hirukotea izan ohi dira. Maisuok ere jotzen dugu lehen zati horretan. Bigarren zatian, ikasleek pieza ezagunak jotzen dituzte.

**Ikasturte amaierako kontzertu hauek urtean barrena egindakoa neurtzeko balioko du, ez al da hala?**

Bai, hala da. Ez badirudi ere, lan handia dago Gazte Orkestraren atzean. Kontzertuak prestatzeko hainbat ordu pasa ditugu musika eskolan, askotan iluntzera arte egon gara entseatzen. Helburua, herriari eskaintzen dizkiogun emanaldietan dena ongi irtetea da.

**Hasi zarete hurrengo ikasturtera begira lan egiten?**

Datorren urtean orkestra osatu nahi dugu. Egun orkestra sokazko instrumentuek bakarrik osatzen dute eta asmoa da, ahal den neurrian, beste instrumentu mota batzuk sartzea, hala nola, haizezkoak eta perkusiozkoak.

**Musikari berriak eskolakoak ala kanpokoak izango dira?**

Guk Arrasate Musikaleko harrobiaren aldeko apustua egiten dugu. Orkestra Nagusia herriko musikariekin ari da indartzen, eta Gazte Orkestra ere, modu berean indartu nahi dugu. Ez dugu orkestra profesionalizatu nahi.

**"Lan handia dago orkestra baten atzean, askotan iluntzera arte egon gara entseatzen"**

**"Herriko musikarien aldeko apustua egiten dugu, harrobia indartzeko"**

## Hurrengo kontzertuak

**13, egubakoitza**
18:30 Monterron jauregian
**14, zapatua**
19:00 Haur Danborradan
**17, martitzena**
18:00 Caja Navarran
**18, eguaztena**
19:30 Musika eskolan
**20, egubakoitza**
18:30 Ikasturte amaierako kontzertua Amaia Antzokian
**24, martitzena**
13:00 San Juan jaietako kontzertua Monterron parkean



Ikasturte amaierak ez du oporra esan nahi Domentx Uzinentzat. J.B.



JOSETXO ARANTZABAL

## Giro ederrean ospatu zuten Gutxituen Eguna

Arrasateko SUDC elkarte gastronomikoak antolatzen duen aurtengo Gutxituen Eguna zapatuan ospatu zuten. Ospakizunak 13:00ean hasi zituzten trikitilarien laguntzaz herriko kaleetan barrena ibiliaz. Kalejiraren ostean, Alkartu elkartean bapo bazkaldu zuten SUDCekoek prestatu zieten bazkari ederra. Eta ospakizunekin amaitzeko, argazkian ikusten den bezala, Uarkape udal pilotalekura abiatu ziren. Bertan ezin hobeto ibili ziren, jolasean.

> ELKARTASUNA

## Gaur estreinatuko dute mugarik gabeko zinemanaldia

Gaurtik eta zapatura bitartean hainbat film, filmalabur eta dokumental ikusi ahal izango dira Kulturaten eta Amaia Antzokian.

Mugarik gabeko zine emanaldia Elkarhezitzen Lan Taldeak antolatu du. Elkarhezitzen proiektua, Debagoieneko garapenerako gobernuz kanpoko bost elkarteren Garapenerako Hezkuntzarako ekimen bat da. Elkartasun izaeradun elkarte honek betiko zinema aretoetan ikustera ohituta ez gauden pelikula eta dokumentalak emango ditu. Herrialde azpigaratuekiko sentsibilizazioa da xedeetako bat.




MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
eteo
ETEO, KOOP. E.
2008-2009
Izenematea
Ekainaren 2tik 13ra
ESKAINTZA AKADEMIKOA

| MGEP | ETEO |
|---|---|
| •Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak<br>•Informatika Sistemen Administrazioa<br>•Informatika Aplikazioen Garapena<br>•Proiektu Mekanikoen Garapena<br>•Mekanizazio Bidezko Produkzioa<br>•Industri Ekipoaren Mantenimendua | •Administrazioa eta Finantzak<br>•Idazkaritza<br>•Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna<br>•Nazioarteko Merkataritza |




San Antonio auzoan, Zumelaga jatetxe parean hasiko dituzte lanak eta Martoko auzoko lehen etxeetaraino egingo dute pasealekua. JASONE ZABALA

**HIRIGINTZA** > BEREHALA HASIKO DIRA OBRAK

# Urbanizazio lanak egingo dituzte Kristo Obreron eta San Antonion

Bi auzoetako urbanizazio lanak egiteko lehiaketara bost enpresa aurkeztu dira. Guztien artean, Construcciones Echaide S.A. enpresa aukeratu du Udalak

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Kristo Obrero eta San Antonio auzoetako urbanizazio lanak hasiko dituzte laster.

Kristo Obreron, auzuneko bizilagunak Udalarekin akordio batera iritsi eta gero, Udalak bere gain hartu zituen auzune horretako lurrak. Beraz, bizilagunek eta Udalak, biek ordainduko dituzte lanok. Udalak %60 ordainduko du, eta auzokideek, berriz, %40. Guztira 227.679 euroko inbertsioa egingo dute. Auzunearen barrualdea oso egoera txarrean dago, eta aparkalekua zuloz josita. Aparkaleku hori lorategi bihurtuko dute eta ezingo da autorik bertan aparkatu, eta eserlekuak ere ipiniko dituzte. Gainera, dekorazio argiak eta beste zenbait zerbitzu gehituko dituzte, hala nola, lur azpiko saneamendua egingo dute, eta hau izango da auzokideek ordaindu beharko dutena. Lan hauek,bi hilabete eta erdian egon beharko dute amaituta. Behin obrak amaituta, Udala arduratuko da auzunearen mantenu lanetaz.

**SAN ANTONIOKO LANAK**

San Antonio auzoko lanak, berriz, Zumelaga jatetxe parean hasiko dituzte, eta Martoko auzoko lehenengo etxeetaraino pasealekua egingo dute; guztira, 200 metro inguru. Kamiñeruen orubean eraikitzen diharduten etxebizitzen ingurua urbanizatu egin behar dela eta, inguru guztia txukuntzea erabaki du Udalak. Pasealekua errekaren kontra joango da, eta hormigoi inprimatuzko zoladura ipiniko diote; gainera atseden tokiak eta berdeguneak izango ditu: eserlekuak jarriko dituzte, pergolak eta baita kale-argi berriak. Oinezkoendako pasealekua izateaz gain, aparkalekuak ere egokituko dituzte. Aparkalekuok pasealekuaren paralelo egingo dituzte. Lanak, bi hilabete eta erdian amaituta egon beharko dute. San Antonioko lanen aurrekontua 216.517 euro da.

**GARAJEAK** > SALMENTA

## Ibargaraiko aparkalekuen eskaera epea datorren ekainaren 11ra arte dago zabalik

Sotoaren planoak eta finken deskribapenak, Bergarako udaletxeko Bulego Teknikoan aztertu ahal izango dira 09:00tatik 14:00ak arte

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Ibargarai kaleko, 17. zenbakian egingo dituzten 56 aparkalekuen eskaera epea duela hiru aste zabaldu zuten, eta datorren eguaztenera arte nahi duenak eskaera egin dezake udaletxean. Aparkaleku plazak irekiak eta bi tamainakoak izango dira, beraz, bakoitzari salmenta prezio bat jarri diote: 20.000 euro balioko dute , eta beste guztiek 15.000 euro. 56 garajeetako bi, gutxituendako egokituta daude. Aparkaleku hauen zozketan parte hartu nahi duenak, ondorengo baldintzak bete behar ditu: Bergaran erroldatuta egotea; turismo erako autoaren jabe izatea eta hura gordetzeko, Bergaran aparkaleku-plazaren jabe ez izatea; ibilgailuen gaineko zirkulazio zerga ordainduta izatea; eta herriko zergen eta udal zigorren ordainketan egunean egotea.

**ESKAERAK AURKEZTEA**

Eskaerak udaletxeko Bulego Teknikoan aurkeztu beharko dira. Zozketan parte hartu nahi dutenek aurkeztu behar dutena da: eskaera inprimakia beteta eta izenpetuta; nortasun agiria; beste pertsona juridiko edo fisiko baten izenean badihardu, ordezkaritza horren egiaztagiria; eta bermearen ordainketa-agiria.

> POLITIKA

### EAJk autobusak antolatu ditu BECeko ekitaldira joateko

Ekainaren 14an, zapatua, EAJk, *Think Gaur Euskadi 2020* egitasmoa aurkeztuko du Barakaldoko BECen. Aurkezpena 18:00etan izango da. Bertara joateko autobusa antolatu dute eta interesatuta daudenek deitu dezatela Batzokira izena emateko.

Egitasmo hori, Iñigo Urkulluk adierazi duenez, "plan berri bat da belaunaldi berri batendako plana. Hainbat esparrutan –jasangarritasunean, gizarte politikan, berrikuntzan eta azpiegituratan– Euskadiren oraina eta etorkizun aurrera eramaten duena".

> IRTEERA

### Ekainaren 18an Bermeora San Joxepe elkartearen eskutik

Datorren ekainaren 18an, eguaztena, San Joxepe elkarteak irteera antolatu du. Oraingo honetan Bizkaia aldera joango dira, Bermeora hain zuzen ere.

Irteera autobus geltokitik izango da 09:00etan. Bermeora heltzen direnean, herriko kaletan zehar ibiliko dira inguruak ezagutzen, eta Aita Gurea museora ere egingo dute bisita. Ondoren, Kafe Antzokian izango dute bazkaria, eta arratsalde aldera Bergarara bueltatuko dira. Irteerarako izena eman nahi duenak, elkarteko telefono zenbakira dei dezake: 943 76 30 09.

KIROLAK > IZENEMATE EPEA

# Udako kirol kanpainarako zozketa egubakoitzean egingo dute

Kiroldegian egingo dute zozketa 10:00etan, eta emaitzak iragarki taulan ipiniko dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ekainaren 30ean abiatuko den Udako Kirol Kanpainako lehen urratsak datozen egunetan emango dituzte. Lehenengo, egubakoitzean egingo duten zozketarako zenbakiak banatuko dituzte, bihar eta etzi, 09:00etatik 13:30era, eta 15:00etatik 19:00etara. Ikastetxeen bidez banatu dituzten orriak eroan behar dira, umearen izenarekin. Orrian, gehienez hiru haurren izenak jar daitezke.

**LAU TXANDA**

Bihar eta etzi banatuko dituzten zenbakien zozketa egingo dute egubakoitzean, 10:00etan kiroldegiko bulegoan. Bertan zehaztuko dute, haur bakoitzak zein egun eta ordutan joan behar duen behin betiko izenematea egitera. Hain justu ere, ekainaren 16an, 17an, 18an, 19an eta 20an. Behin betiko izena ematerakoan, aukeratutako kirola, ordua eta txanda zehaztu beharko dituzte. Horren harira, Udako Kirol Kanpainan lau txanda egingo dituzte: ekainaren 30etik uztailaren 11ra, uztailaren 14tik uztailaren 28ra, abuztuaren 1etik 14ra, eta abuztuaren 19tik 29ra. Dena den, abuztuko bi txandetan kirol eskaintza txikiagoa izango da, sei kirol egongo dira-eta.

## Kirol eskaintza, adina, egunak eta tokiak

| KIROLA | ADINA | EGUNAK | TOKIA | TXANDAK |
|---|---|---|---|---|
| MINI-TENISA | 6-9 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| TENISA | 10-17 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| GOLFA | 8-17 | Eguaztenetan eta egubakoitzetan | Irelore | 1 |
| BADMINTONA | 8-17 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| SQUASHA | 8-17 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| BEISBOLA | 10-17 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| WATERPOLOA | 6-17 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 1 |
| PATINAJEA (UMEAK) | 4-12 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| PATINAJEA (HELDUAK) | 17tik gora | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| IGERIKETA | 4-17 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 1 |
| AQUAGYMA | 10-17 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 1 |
| MENDIKO BIZIKLETA | 10-17 | Bi txanda | Oñati | 2 |
| ESKALADA | 8-17 | Bi txanda | Zubikoa | 2 |
| PILOTA | 8-11 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| BATUKA (UMEAK) | 7-13 | Egun ezberdinetan | Zubikoa | 1 |
| PSIKOMOTRIZITATEA | 5-6 | Astelehenetik egubakoitzera | Zubikoa | 2 |
| ARKU-TIROA | 12-14 | Maritzenetan eta eguenetan | S. Lorentzo | 1 |

Iturria: Zubikoa Kiroldegia

> DEIALDIA

### Zabalik dago Musika Eskolan izena emateko epea

Jose de Azpiazu Musika Eskolako matrikulazio epea zabalik dago, ekainaren 20ra arte. Hain zuzen, 2008/09 ikasturtean musika eskolak jaso gura dutenendako izenematea da.

Izena eman gura duenak edo informazio gehiago gura duenak, Musika Eskolaren egoitzara joan beharko du eskola orduetan, 18:00etatik 20:00etara, edo bestela telefonoz dei dezake, 943-78 31 74 zenbakira

> DEIALDIA

### 1964. urtean jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute

1964. urtean jaiotakoak kinto bazkaria antolatzen dabiltza. Hain zuzen ere, uztailaren 19an egingo dute bazkaria Etxe Aundi jatetxean. Dagoeneko, izenemate epea zabaldu dute, eta horretarako, interesatuek Euskadiko Kutxako kontu korrontean 30 euro sartu beharko dituzte, uztailaren 15a baino lehen.

Bazkaldu aurretik poteoa egingo dute, horretarako 13:00etan elkartuko dira Oñati tabernan. Bazkaria 14:30ean izango da.



M.B.

## Irisgarritasun planaren lanak, Portu Kalean

Irisgarritasun planaren bigarren faseko lanak Portu Kalera heldu dira, dagoeneko. Une honetan, espaloiak zabaltzeko lanak egiten dihardute. Espaloiak zabaltzearekin batera, errepidea estutu egingo dutenez, Santander banketxearen aldeko aparkalekuak kendu egingo dituzte, besteak beste. Portu, Bakardadeko Ama eta Moiua kaleak, eta Santa Marina plazako eta Euskadi Etorbideko lanak egiteko 5,6 milioi euro gastatuko ditu Udalak. Lanok, azarorako bukatuko dituzte.

KIROLAK > PILOTA

# Plazako pilota txapelketan kadete eta gazte mailetako 54 bikote lehiatuko dira

Aloña Mendi pilota sailak antolatutako pilota txapelketako partiduak plazako pilotalekuan jokatuko dituzte

M.B. > OÑATI

Ekaina iristearekin batera, urteroko hitzordua da plazako pilota txapelketa. Aloña Mendi pilota sailak antolatzen duen txapelketan, Debagoieneko eta Durangaldeko elkarteek parte hartzen dute. Guztira, Arabako, Bizkaiako, Nafarroako eta Gipuzkoako 54 bikote lehiatuko dira irabazlearen txapela janzteko; hain zuzen, 26 kadete mailan eta 28 gazte mailan.

Plazako txapelketako partiduak, martitzenetan, eguenetan eta egubakoitzetan jokatuko dituzte estali bariko pilotalekuan, eta finala, uztailaren 30ean jokatuko dute. Eguraldi txarra egiten duenean, norgehiagokak kiroldegiko frontoian jokatuko dituzte.

**ESTALI GABEKO FRONTOIAK**

Estali gabeko pilotalekuan jokatzen den txapelketak, urtero, pilotari mordoa biltzen du. Aloña Mendik antolatzen duen txapelketak bi helburu nagusi ditu: alde batetik, kadete eta gazte mailetako pilotarien denboraldia luzatzea, eta beste alde batetik, estali gabeko pilotalekuek garai batean izan zuten garrantzia berreskuratzea. Partidu gutxi jokatzen dira estali bariko frontoietan, izan ere, halako gune gutxi dago. Oñatiko txapelketak 18. ekitaldia bete du dagoeneko.

Oñatiko txapelketan kadete eta gazte mailetako pilotaririk garrantzitsuenek parte hartzen dute.

**BEDERATZI BIKOTE GUTXIAGO**

Iaz, 45 bikotek jokatu zuten txapelketa: 24 bikote kadete mailan, eta 21 gazte mailan. Uztailaren 27an jokatu ziren finaletan, Iriondo eta Murgiondo añorgarrak nagusitu ziren kadete mailan, eta, Barberia eta Landaburu, Betelu eta Elorrioko bikoteak jantzi zuen gazte mailako txapela.



Langileak eguenean ibili ziren Bedarreta auzunean dagoen idatzia estaltzen. MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA > UDALA

# Frankismo garaiko idatzia estali egin dute Bedarretako San Migelen

Herria berrikusi dute eta ikur bakarra topatu dute; alkateak herritarrei eskatu die, garai hartako sinboloak ezagutzen badituzte, jakinarazteko

**M.ALTUBE/M.BITERI** > ARETXABALETA

Frankismo garaiko sinbologia kentzen ibili ziren joan zen astean. Zehazki, joan den eguenean, Bedarretako San Migel auzuneko etxebizitza eraikin batean dagoen frankismo garaiko idatzia orearekin eta margoarekin estaltzen izan ziren. Hona hemen esandako eraikin horretan jartzen zuena: *Delegación Nacional de Sindicatos. Grupo San Miguel de Bedarreta. 96 viviendas año 1960.* Ondoan, gainera, frankismo garaiko ikurrak ditu, hala nola, gezi batzuk gora begira.

Inaxio Garro alkateak gogorarazi du joan den urtean Memoria Historikoaren Legea onartu zenean, Udalak herrian egon zitezkeen frankismo garaiko sinboloak kentzeko erabakia hartu zuela. Apirilean egindako osoko bilkuran herria berrikustea adostu zuten aho batez, egon zitezkeen ikurrak topatzeko. Dagoeneko zeregin hori egin dute eta Bedarretako San Miguel auzunekoa baino ez dute topatu.

**HERRITARREI DEIA**

Alkateak azpimarratu du plaka horretan jartzen zuena ez zela "oso ondo atzematen". Hala, azaldu du eraikin bateko laugarren pisuan zegoela, teilatu azpian. "Jende askok ez zekien ikurra hor zegoenik". Alkateak, gainera, dei egin die aretxabaletarrei: "Frankismo garaiko ikurren bat topatzen badute, Udalarekin harremanetan jartzeko eskatu nahi diet, sinbolo hori ahalik eta azkarren kentzeko".

# Eskoriatzarrek odola eman dezakete gaur arratsaldean



GOIENKARIA

Aspaldiko ohiturari jarraituta, odola emateko aukera egongo da gaur, astelehena, Eskoriatzan. Osasun etxean egingo dira odol ateratzeak, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Eskoriatzako elkarteak eskoriatzarrei zein inguruko herritarrei odola emateko dei egin die, behar handia dago eta. Irudian, Arrasaten egindako odol ateratzea.

**ARETXABALETA**

## Jaietarako esaldi lehiaketa deitu dute

Esaldiak hilaren 27ra arte aurkez daitezke udaletxean edo kultura etxean

**M.B.** >ARETXABALETA

Udalak dagoeneko Andramaixetarako esaldi lehiaketa deitu du. Proposamenak gaur eta ekainaren 27ra bitartean aurkeztu behar dira, udaletxean edo kultura etxean. Kartazalean izena ipini behar da; eta barruan, beste kartazal itxi batean, datuen txartela sartu. 13 urtetik gorako aretxabaletarrek edo taldek parte har dezakete. Gura beste esaldi aurkez daitezke.

Andramaixetako egitarauan erabiliko den esaldia asmatzen duenak 120 euroko saria jasoko du; pegatinak egiteko erabiliko diren esaldien egile bakoitzak, berriz, 60 euro. Uztailaren 9an, Andramaixetako kartel lehiaketarekin batera, saridunen zerrenda jakinaraziko du Udalak.

> ARETXABALETA

### Funky eta hip hop ikastaroa izango da egubakoitzean

Arkupe kultura etxe berriko dantza aretoa ikastaroak hartzen hasiko da datozen egunotan. Egubakoitzean, ekainak 13, hip hop eta funky ikastaroa egongo dute han. Saioa arratsaldez izango da, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

Izena eman gura duenak Kultura edo Gazteria sailekin jarri behar du harremanetan, telefonoz edo Internet bidez. Hip hop eta funky ikastaroa dohainik izango da.

> ESKORIATZA

### Mugarik gabeko zinea, ekainaren 11n eta 13an Ibarraundin

Mugarik gabeko zinea iritsiko da eguaztenean Eskoriatzara. Eguaztenean, hilak 11, *FMG* film laburra eta *Sister in Law* izeneko dokumentala ikusi ahal izango dira 19:00etan, Ibarraundi museoan. Egubakoitzean, berriz, *Alamitou* film laburraren eta *Wadi gaineko zubia* dokumentalaren txanda izango da. Ordu berean hasiko dira emanaldi horiek. Gazteleraz izango dira saio guztiak.

**ANTZUOLA** > MUSIKA

# Musika eskolako jaialdia eguenean izango da

Bergarako eta Antzuolako ikasleek jardungo dute Olaran etxean egingo duten emanaldian

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Antzuolako eta Bergarako Musika Eskoletako ikasleek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute eguenean, ekainaren 12an, Olaran etxean 19:30ean.

Lehenengo, kantuan jardungo dute Hizkuntza Musikaleko eta Ahots Teknika eta Koraleko 17 ikaslek Alberto Carreraren zuzendaritzapean. Pianoan lagun izango dute Amaia Urdangarin irakaslea. *Good morning*, *Nere Herriko Neskatxa Maite*, Oskorri taldearen bi abesti eta *Peace, Peace, Peace* abestuko dituzte.

**AKORDEOI TALDEA**

Santiago Rosales antzuolarrak akordeoiarekin *Touchenette* abestia eskainiko du gero. Akordeoi taldeko beste kideekin batera *Immer gleich* eta *Volkstanz* piezak joko ditu ondoren. Ioritz Ondarrarek, Olatz Azkaratek, Uxue Egañak, Amaia Ruizek, Sonia Gonzalezek, Ane Loidik eta Leire Agirrek osatuko dute taldea.

Lide Madinabeitiaren eta Laura Friasen klarineteek, Maite Alberdiren biolinak eta Amaia Galarragaren biolontxeloak bat egingo dute hurrengo kantua eskaintzeko; *London Derry* pieza, hain zuzen ere. Akordeoien ostean, musika garaikide melodikoa joko du Jesus Mari Arriaranek Oboearekin.

Metal taldeak hartuko du ondoren lekukoa. Bergarako eta Antzuolako musikariek osatutako taldea da. *Promenade from Pictures* pieza joko dute saxofoiarekin Xabier Iparragirrek, Aitzol Gandiagak eta Lander Egañak; flautarekin Jon Matak; tubarekin Andoni Moñuxek, tronparekin Gorka Pratek; eta klarinetearekin Kepa Etxanizek. Azkenik *Pantera Rosa* joko dute Aitzol Gandiagak, Lander Egañak eta Miriam Morenok saxofoiarekin Kemen Bedialaunetaren esanera.



Jesus Mari Arriaran irakaslea Andoni Iparragirre, Antzuolako ikaslearekin oboea jotzen. MUSIKA ESKOLA

## Baserritar jantziak ikusgai udaletxean

Udalak Herri egunean baserritarrez janzteko deia egin die herritarrei. Hori bultzatzeko baserritar jantziak ipini ditu ikusgai udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Aste bukaeran zabaldu ditu ateak erakusketa horrek; bariku eta zapatuan egon da zabalik. Ikusteko tarterik izan ez duten herritarrek aukera berria izango dute hurrengo asteburuan. Ordutegia; barikuan 19:30etik 21:00etara eta zapatuan 12:00etatik 13:30era.



L.Z.



Astelehenean saioa izan zuten udaletxe osoko bilkuren aretoan. GOIENKARIA

**ARAMAIO** > OSASUNA

# Erlaxazio eta emozio orekaren tailerra egin dute

Adineko pertsonak etxean zaintzen dituzten udalerriko bederatzi senideek parte hartu dute hiru egunetan egindako saioetan

MIRIAN BITERI > ARAMAIO

Joan den astean adineko pertsonak etxean zaintzen dituzten senideendako tailerra egin dute Aramaion. Bederatzi lagunek erlaxazioa eta emozio oreka lantzen ikasi dute. Pazientziaren artea, kontrol mentala, norberarenganako begirunea eta barne baretasunaren gaineko teknikak erakutsi dizkiete, besteak beste.

Erlaxazio eta emozio oreka izeneko tailerra hiru saiotan egon da banatuta. Lehenengoa astelehenean egin zuten, bigarrena eguaztenean eta azkena, barikuan. Parte hartu duten gehienak emakumeak izan badira ere, gizonezko batzuk ere izena eman dute tailerrean. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin dira saioak, 17:30etik 19:00etara bitartean.

Lasai egotea nortasunaren ezaugarria baino, "trebetasun multzoa" dela ikasi dute hiru egun horietan. Hala, "trebetasun multzo hori gogo eta gorputz teknika batzuk erabiliz erraz ikas daitekeela" ikasi dute. Horiek praktikatuz, bizitzarekiko jarrera aldatzen dela ikasi dute.

**LEINTZ GATZAGA** > UDALEKUAK

# Ekaina bukatu arte, zabalik izenematea

Uztailaren 7tik 18rako antolatu ditu udalekuak Gurelek umeendako eta gazteendako, eta uztailaren 12an gurasoekin egingo dute irteera

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Zabalik dago uztaileko udalekuetan izena emateko epea. Labidea dendan egin daiteke, eta argibide gehiago gura dituenak bertan galde dezake. Ekaina bukatu artean jasoko dituzte herriko 3 eta 13 urte arteko ume eta gazteen izenak.

Urtero legez aste bi eskainiko dizkiete udalekuei: uztailaren 7tik 18ra bitartean. Egubakoitzean; hain zuzen, egin zuten bilera begirale izango diren hiru lagunekin Gurel elkarteko ordezkariek. Eta antolatuko dituzten ekintzen nondik norakoak zehaztu zituzten. Hiru irteera egiten dituzte urtero gatzagarrek, eta aurten ere horixe egiteko asmoa daukate: zalditegi batera, Gamarrako igerilekura eta Gaztainuzketako mendi etxeetara gaua pasatzera. Zalditegia aldatzea erabaki dute aurten, eta Bikuña herrian (Araba) dagoena hautatu dute. Uztailaren 12an, zapatua, izango da, eta umeak gurasoekin batera joango dira.

**LUDOTEKA ITXITA**

Bestalde jakinarazi dute ludoteka eta liburutegia dagoeneko itxita daudela. Datorren ikasturtera arte ez da zerbitzurik egongo.



> ERRUGBIA
BEC eta La Unica nagusitu dira Arrasateko zazpinako txapelketan > 19



> PILOTA
Debagoiendarrak izango dira finalista denak Debarroko Txapelketan > 20

> SASKIBALOIA
Bartzelona txikituta ACB Liga irabazi du astean TAU Baskoniak, eta hori dela-eta elkarrizketa egin diogu Ander Garciari, Gasteizko taldeko jokalari bergarararri > 21




**MENDIKO BIZIKLETA** > EUSKADIKO OPENEKO BOSGARREN PROBA

# Iñaki Lejarreta, Aramaiotik Munduko Txapelketara




**OINA LURRERA** Aldapa gora eta aldapa behera hankak pedaletik atera behar izan zituzten sarri. JOSETXO ARANTZABAL

**JULEN IRIONDO** > ARAMAIO

Beijingeko Olinpiar Jokoetan egongo da, eta lehenago –bi aste barru–, Munduko Txapelketan. Eta aramaioarrek herriko lasterketan ikusteko, irabazten ikusteko, ohorea izan zuten domekan. Iñaki Lejarretak, espero zen moduan, ez zuen kontrariorik izan Aramaioko Sari Nagusian –Euskadiko Openeko bosgarren lasterketa. Helmugan haren atzetik sartuta sailkapen orokorreko lidertza sendotu zuen, berriz, Asier Apezetxea nafarrak. Emakumezkoetan, bi parte-hartzaile izan ziren bakarrik, eta Openeko lider Olatz Odriozola urnietarrak alde handiarekin irabazi zion Marta Garciari, aurreneko pedalkadetatik aurrea hartuta.

Txirrindulari guztiak bat etorri ziren lasterketaren gogortasuna nabarmentzerako orduan. Ibilbidea bera, alde batetik: aldapa luzeak eta gogorrak gorantz, eta gero behera denbora askoan. Sei kilometro eta 700 metroko barrutian, bi itzuli egin zituzten kadeteek, hiru juniorrek eta emakumezkoek, lau beterano eta master mailakoek, eta bost elite eta 23 urtez azpikoek. Antolatzaileek pentsatuta zuten baino itzuli bat gutxiago jartzea erabaki zuten, eta baita goiko aldean pinudi batetik pasatzen zen ibilbide zati bat kentzea ere. Izan ere, lehendik ere oso gogorra zen ibilbideari beste zailtasun bat gehitu zitzaion.

**LOKATZA UGARI BIDEAN**

Antolatzaileek zerura begira eman dituzte proba aurreko azken egunak. Astean egindako euriaren ostean, zapaturako lurra nahikoa lehortu eta gogortzeko astia eman zuen arren, domeka goizean botatako zaparradek erabat lokaztu zuten ibilbidea. Txirrindulari askok bizikletatik jaitsita egin behar izan zuten goranzko ia bide guztia. Jaitsiera, berriz, oso labainkorra geratu zen, eta bat baino gehiago joan zen hankaz gora, nahiz eta istripu larririk izan ez.

Eliteko lasterketari dagokionez, hasi bezain pronto, lasterketa buruan geratu ziren Iñaki Lejarreta eta Asier Apezetxea. Aurreneko itzulia amaitzerako, Lejarreta bakarrik zegoen aurrean, eta minututik gorako aldea zuen Apezetxearekiko. Aldi berean, Apezetxeak dezenteko tartea zuen atzekoekiko, eta horrenbestez, ez zuen arazorik izan Openeko lidertza sendotzeko –Lejarreta ez da ari Opena lehiatzen. Nesketan ere, alde handia du Olatz Odriozolak Openeko sailkapen orokorrean.

## sailkapenak

| ELITE | |
|---|---|
| 1. Iñaki Lejarreta | 1:57:52 |
| 2. Asier Apezetxea | 7:57ra |
| 3. Joseba Leon | 10:40ra |

| JUNIORRAK |
|---|
| 1. Omar Fraile |
| 2. Iñigo Gomez |
| 3. Markel Arriolabengoa (Aramaio) |

| SUB 23 |
|---|
| 1. Eneko Lejarreta |

| KADETEAK |
|---|
| 1. Aitor Begino |

| MASTER |
|---|
| 1. Jose Luis Iñorbe |

| BETERANOAK |
|---|
| 1. Ramon Lekuona |

| EMAKUMEAK |
|---|
| 1. Olatz Odriozola |

ESANAK

"Lasterketok proba ona dira bi aste barru izango den Munduko Txapelketarako. Hamar onenen artean egon nahi dut han"
**Iñaki Lejarreta** > Irabazlea

"Zirkuitua polita zen. Agian aldapak luzeegiak ziren, bai gora eta bai behera: aurrena, dena igo, eta gero, dena jaitsi"
**Asier Apezetxea** > Bigarrena

"Oso gogorra izan da. Lokatza asko zegoen bidean. Igo, bizikleta eskuan egin dut ia dena, eta jaitsi, ahal zen moduan"
**Olatz Odriozola** > Irabazlea

"Eskerrak goiko zati bat kendu eta itzuli bat ezabatu dutenari! Zegoen lokatzarekin, nahikoa gogorra geratu da, hala ere"
**Zigor Urain** > Arrasatearra

**TXAPELKETA** > I. ANBOTO KILOMETRO BERTIKALA

# Kortabarria, ibarreko lehena Anboto puntan

Debagoieneko 20 korrikalarik hartu dute parte Anbotoko mendi lasterketaren lehen edizioan; Raul Garcia segoviarrak irabazi du proba

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Anboto Kilometro Bertikala lasterketak lehen aldia zuen atzokoa. Arrazolako plazatik (228 metro) Anbotoko tontorrera (1.328 metro) arteko ibilbide zuzenenetik ahalik eta denborarik laburrenean iristea zen helburua.

Goizean euri apur bat egin arren, oro har, eguraldia lagun izan zuten proban barrena lasterkariek. Goi partean, hala ere, behe lainoa izan zen. "Igoeran lokatza egon denez, horrek gogortu egin du proba, korrikalarien esanetan; hala ere, lasterketa polita izan dela. Kanpotik etorri direnei ere asko gustatu zaie ingurua", esan digu antolatzaile taldeko Ekaitz Aierdik.

Lehen urtea izateko, partehartzaile kopuruarekin gustura zeuden antolatzaileak: 170 izan dira. Ikusleak ere asko izan dira. "Jende asko gerturatu da proba ikustera eta korrikalariak animatzera, eta giro polita sortu da", esan digu Ekaitz Aierdik.

**FABORITOAK, IRABAZI**

Igoera gogorraren ostean, faboritoa zenak, Raul Garcia segoviarrak, irabazi du. Munduko txapeldunordea da, eta Zegama-Aizkorri lasterketan ere bigarren izan da bi urtean. Antolatzaileek azaldu dutenez, "erreferentzia moduan, 40 minutuko denbora ipini genuen, eta gailurrera iristeko beste bi minutu behar izan baditu ere, berari eman diogu errekorraren saria. Hurrengo urtean hori gainditu beharko da".



Aritz Kortabarria, aldapan gora; atzean, Joxe Mendiola oñatiarra. ARGAZKI PRESS

Ibarreko ordezkaririk ere ez da falta izan lasterketan; 20, hain zuzen ere. Debagoiendarren artean lehena Aritz Kortabarria izan da, eta sailkapen orokorrean seigarren tokian amaitu du lasterketa, irabazlearengandik bi minutu eta bost segundora.

Antolatzaileak aurrerantzean errepikatzeko gogoz azaldu dira eta, beroien sanetan, baita korrikalariak ere.

## Sailkapena

| | |
|---|---|
| **GIZONEZKOAK** | |
| 1. Raul Garcia | 42:22 |
| 2. Harkaitz Zamakona | 43:24 |
| 3. Patxi Urizar | 44:11 |
| **EMAKUMEAK** | |
| 1. Alizia Romero | 54:38 |
| 2. Izaskun Zubizarreta | 55:03 |
| 3. Patricia Althape | 56:08 |
| **DEBAGOIENDARRAK** | |
| 6. Aritz Kortabarria | 44:27 |
| 9. Joseba Molinero | 45:37 |
| 14. Mikel Navarro | 46:30 |
| 19. Joxe Mendiola | 47:49 |
| 21. Arkaitz Letamendi | 47:55 |
| 36. Ekaitz San Vicente | 51:09 |
| 44. Iban Isasti | 52:17 |
| 46. Jabier Arriaran | 52:20 |
| 52. Aitor Otxoa | 52:52 |
| 54. Xabier Iribekanpos | 53:17 |
| 55. Aitor Aiala | 53:33 |
| 60. Kepa Larrea | 53:56 |
| 76. Argider Isasti | 56:38 |
| 77. Iker Agirrebaltzategi | 56:39 |
| 78. Igor Guenetxea | 56:42 |
| 92. Iñigo Altuna | 58:04 |
| 104. Josu Gascon | 59:15 |
| 128. Luis Urigoen | 1:03:47 |
| 135. Rosa Lasagabaster | 1:10:23 |
| 152. Iñigo Eriz | 1:11:49 |




Aurten 84 milioi euro inbertituko ditugu Gizarte Ekintzan. Adituek esaten digute publizitate-kanpaina zirraragarriren bat egin beharko genukeela. Baina ezagutzen gaituzu. Guk nahiago dugu zuri Institutu Onkologiko berriaren lanak nola doazen erakutsi.
125 urte gizartearen ongizatearen alde lanean
Gizarte Ekintza, kutxaren izateko arrazoia
ONKOLOGIKOAREN ERAIKUN


EKAINAK 5 INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA
NATURAN
GUZTIOK BIZI GARA ETXEPE BEREAN.
Zaindu Biodibertsitatea
2008
berrikuntza urtea
euskadi
año de la innovación
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO
ingurumena.net
Gure esku dago

**ERRUGBIA** > NAZIOARTEKO ZAZPINAKO TXAPELKETA

# Iruñeko La Unica eta Bordeleko BEC nagusitu dira hamargarren urtemugan

Nafarroako neskek Atletico San Sebastian menderatu zuten, eta Ordizia, frantziarrek

Emakumezkoetan, sei talde, eta mutiletan, zortzi ibili ziren lehian Mojategiko zelaian

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Errugbi azkarra, oso fisikoa, benetan ikusgarria izan zen zapatuan Arrasaten. Mojategiko zelaian, zabaletara eta aldi berean bi partidu jokatzen zirela, hamalau talde ibili ziren lehian. Emakumezkoetan –aurreneko aldiz parte hartu dute txapelketan–, sei: La Unica, Atletico San Sebastian, Mungia, Durango, Getxo eta Arrasate; gizonezkoetan, zortzi: BEC, Ordizia, Hernani, Gaztedi, La Unica, Balsaya, Bera-Bera eta Arrasate. Hurrenkera horretan geratu ziren sailkapenak.

Zazpi minutuko bi zatiko partiduak izan ziren. Aurrena liga erara jokatu zuten, eta finalerdiak eta finala, amaitzeko.

Errugbi giro ederra sortu zen Mojategin. Jokalariak, urte osoko irabazi beharra albo batera utzi eta jokatzen gozatzeko asmotan, nesken taldeak ere zelaian lehian, aitzakia bi baino ez ditu izan aurtengo txapelketak: harmailetan aukeran jende gutxitxo batu izana eta Bera-Berako jokalari batek izandako lesioa. Ustez, arrisku handirik ez zuen jokaldi batean hartu zuen min, eta anbulantziaz eraman zuten ospitalera. Bera-Bera sailkapenean aurrean ibiltzeko hautagaia zen, baina Donostiako taldeak utzi egin zuen txapelketa.

**PRONOSTIKOAK BETE**

Gainerakoan, espero zitekeen moduan joan zen txapelketa. Hala, mutiletan, BEC eta Ordizia erraz nagusitu ziren finalerdietan. Frantziarrek 45 eta 5 irabazi zioten Hernaniri, eta goierritarrek, 50 eta 0 Gaztediri. Finalean, 17 eta 0 irabazi zion BECek Ordiziari. "Bordeleko taldea da BEC, eta denok dakigu ze maila duen Frantziako Estatuko errugbiak. Beti ekartzen dugu hango talderen bat, eta lehia polita edukitzen dute Hegoaldean ditugun maila goreneko taldeekin", zioen Joseba Maidagan Arrasate Errugbi Taldeko zuzendaritzako kideak txapelketa amaitu berritan.



Lehenengoz, neskak ere ibili dira lehian aurtengo txapelketan. JOSETXO ARANTZABAL

Bestetik, final estua jokatu eta gero, La Unicak 10 eta 5 irabazi zion Atletico San Sebastiani emakumezkoen aurreneko txapelketan. "Aurten nesken taldea ere izan dugu Arrasaten. Hasi besterik ez gara egin, eta neskei bultzada emateko, eurendako txapelketa ere antolatu dugu. Oso gustura gaude zentzu honetan ere. Sei neska talde etorri dira gaur hona, eta kopuru txukuna dela iruditzen zait. Lehia polita izan dute", zioen Maidaganek.

Irabazle izan ziren taldeetako jokalari bana izendatu zituzten txapelketako onena. Arrasateko jokalari onenaren saria Jon Lizaurrek eta Miren Lazkanok jaso zuten. Arrasatearrak, baina, azkeneko postuan sailkatu ziren bai mutil eta bai nesketan. Hori "tristea" dela adierazi zigun Maidaganek: "Nik uste dut igarri dela atzo gauean karpan gogor ibili ginela lanean. Ez; egia esan, pena ematen du geure txapelketan etxeko taldeak azkeneko postuan ikusteak. Hori da egun daukagun mail,a eta horri buelta emateko lan handia egin behar dugu".

Bestelakoan, Arrasate Errugbi Taldeko kideak oso gustura geratu ziren txapelketak eman zuenarekin: "Oso pozik gaude. Errugbian hainbeste izen ez dugun herria izanda, ez da erraza hamar urte eta gero hainbeste taldek gurera etortzen jarraitzea. Aurten, gainera, beste txapelketa batzuk antolatu dituzte Madrilen eta Bizkaian, eta hemen ohikoak diren zenbait talde ez dira etorri. Bestela, oso giro polita egon da".



Zazpinako errugbia ohikoa baino azkarragoa eta fisikoagoa da, ikusgarria. J.A.

## Klubeko kideek lan eta herritarrek gozatu egin zuten hirugarren zatian, Alemaniako jakiak eta garagardoa dastatzen

Hirugarren zatia partidu ostean jokalariek erlaxatu eta tragoxka bat edateko hartzen duten tarteari esaten zaio errugbiko hizkeran. Zapatuan lehian ibilitako jokalariek eurek ez dakigu, baina Arrasateko klubeko gainerako kide eta beste mailetako jokalariek, behintzat, atsedenerako denbora gutxi izan zuten zazpinako txapelketa amaitu ostean. Izan ere, mugimendu ikaragarria zegoen plazako karpan. Txapelketa eta Garagardo Festa eskutik joaten dira urtero, eta aurten ere horrela izan da; eguenetik, gainera. Eguenean ireki zuten karpa erraldoia, eta aurreneko egunean bertan, edukieraren erdia beteta izan zutela adierazi ziguten antolakuntzako kideek. Arrasate Errugbi Taldearen babesleekin-eta afaritxoa egiteko aprobetxatu zuten, gainera.

Baina egunik jendetsuenak egubakoitza eta zapatua izan ziren. Giro aparta egon zen plazan. Afalorduan, goraino bete zen karpa, eta klubeko kideek erruz egin behar izan zuten lan jan-edanak zerbitzatu eta, batzuek sabela bete orduko, beste batzuk jesar zitezen mahaiak garbitzen. Kopuruei dagokienez, 700 oilasko errazio, Alemaniako 2.000 saltxitxa eta 600 txerri-ukondo jarri zituzten jateko. Edateko, berriz, batez ere Alemaniakoa baina baita Bretainia Handiko garagardoa ere, litroka –1.500 litro inguru edaten omen dira normalean.

Zapatu iluntzean, izugarrizko giroa zegoen karpan. Errugbi txapelketako sariak ere orduan banatu zituzten, eta ez zen txalo eta oihurik falta izan. Zarata ateratzen, zalantzarik gabe, La Unicako iruindarrak izan ziren nagusi. Han zegoen giroa eta jendetza ikusita, aurrerantzerako nahi bat azaldu zuen Joseba Maidagan klubeko kideak: "Badakigu hemen ze gustuko dugun jan eta edatea, baina Mojategira ere jende gehiago joan dadila, kirola ere garrantzitsua da-eta".



Mojategin baino jende gehiago batu zen plazako karpan. J.A.

**PILOTA** > DEBARROKO TXAPELKETA

# Antzuola izango da Elgetaren aurkari Hirurok sariko finalean

Arrasatek irabazi du itzulerako partidua, baina Antzuolak egin du aurrera, tanto aldeagatik

Elgetak joaneko emaitzari buelta eman eta erraz kanporatu du Elgoibar, finalerako sailkatuz

**JULEN IRIONDO** > ARRASATE

Ez zuen erronka erraza Arrasatek zapatu arratsaldean: Antzuolari irabazi ez ezik, haiek 14 tanto baino gutxiago egitea lortu behar zuten Aspe eta Uribarrenek, Hirurok sariko –Debarroko Txapelketa– senior mailako finalean egoteko. Aurten, gainera, Uarkapen izango da finala, baina azkenean etxekoek ez, antzuolarrek jokatuko dute.

Joaneko neurketan ondo bideratu zuen kanporaketa Antzuolak: euren frontoian 14an utzi zituzten arrasatearrak. Ezker eskua minduta jokatu zuen orduan Egoitz Uribarren atzelari arrasatearrak, eta zapatuan ere ez zuen guztiz ondo. Dena dela, Uarkapeko lehian ez zen Xabier Biteri baino gutxiago izan.

Aurrean, Unai Aspe arrasatearrak eta Aitor Mendizabal antzuolarrak lehia polita izan zuten. Biek egin zituzten jokaldi polit ugari.

Partidua oso parekatua izan zen lehenengo zatian. Antzuola aurretik ibili zen markagailuan, baina alde erabakigarririk lortu gabe. Honela, partidu erditik aurrera Arrasatek hartu zuen agintea markagailuan. Baina 14 eta 11 zirela Aspek falta egin zuen sakez, eta hor txikitu ziren finalerako sailkatzeko arrasatearren aukerak. Etxekoen bolada ona etenda, beste hiru tanto nahikoa zituen Antzuolak finalean sartzeko. Azkenean, 16 egin zituen, eta txartela lortu horrela.

Senior mailako beste finalerdia Elgetak eta Elgoibarrek jokatu dute. Joanekoan 22 eta 19 irabazi zuten debabarrendarrek; itzulerakoan, ostera zortzi baino ez zituzten egin. Argi geratu zen Elgoibarko frontoi txikitik kanpo askoz gehiago dela Elgeta.

Debarroko Hirurok sariko finalak oraingo domekan, hilak 15, jokatuko dira, Arrasateko Uarkapen, 10:30ean hasita.



Antzuolako Aitor Mendizabalekin lehia polita izan zuen Unai Aspe arrasatearrak (argazkian) aurreko koadroetan. J. ARANTZABAL

FINALAK

## Debagoiendarrak dira azkeneraino iritsi diren bikote guztiak

Debagoiendar eta debabarrendarren artean jokatzen den txapelketa da Debarrokoa, baina oraingoan gure bailarakoak ari dira nagusi izaten argi eta garbi. Debabarrendarrek Elgoibar bakarrik sartu zuten finalerdietan. Gazte mailakoan eta nagusietan eduki dute euren aukera, baina batean ere ez dute aurrera egin. Ondorioz, domekako finaletan gure ibarrekoak izango dira bikote guztiak. Kadeteetan, Aretxabaleta eta Eskoriatza ibiliko dira. Aretxabaletak 13 eta 22 galdu zuen joanekoan Arrasaten, baina 22 eta 3 irabazi, itzulerakoan. Beste finalerdian, Eskoriatzak bi partiduak irabazi dizkio Bergarari (22 eta 3 eta 22 eta 11). Gazte mailan, Arrasate eta Eskoriatza lehiatuko dira txapelaren bila. Elgoibarrek 22 eta 20 irabazi zion Arrasateri joanekoa; Arrasate 22 eta 10 nagusitu zen itzulerakoan. Eskoriatzak, berriz, bi partiduak irabazi dizkio Bergarari (biak 22 eta 8). Azkenik, senior mailako finala Antzuolak eta Elgetak jokatuko dute.

**BOULDERRA** > MUNDUMIRA SARIA

# Debagoienetik kanpo joan dira txapel guztiak

**J. I.** > BERGARA

Eskalada giro bikaina bizi izan zen Bergarako Aranzadi ikastolaren jolaslekuan domeka goizean. Mundumirako egitarauaren baitan, Boulder txapelketa ikusgarria jokatu zuten.

Guztira 40 eskalatzailek hartu zuten parte, neska eta mutil, elite mailan, 23 urtez azpikoetan eta baita umetan ere. Azken horiek erakustaldia egin zuten, txapelketa beharrean. Denen artean, erdiak inguru izan ziren debagoiendarrak; Arrasatekoak gehienak, baina baita beste herri batzuetakoak ere, Bergaran bertan kirol horretan hasi berriak diren hiru lagun, esaterako.

Sailkapen probak jokatu zituzten aurrena, eta finalak gero. Sailkapenean, sei ibilbide egin behar izan zituzten parte-hartzaileek, eta finalean, hiru. Blokeak oso egokiak ziren, zailegiak ez, ezta errazegiak ere. Bat ere ez zen geratu amaierara iritsi gabe, nahiz eta zenbaitek ahalegin bat baino gehiago egin behar.

**MAILA POLITA**

Eskalatzaileek oso maila polita eman zuten. Izan ere, lehian ibili zirenen artean zeuden, adibidez, Euskadiko Txapelketan ibiltzen diren zenbait. Baina antolatzaileen helburua zen, zaildutako eskalatzaileekin batera, herrikoiek ere parte hartzea Mundumirako festan; eta lortu zuten, horietarikoak ere dezente animatu ziren-eta.

Txapelketa ikustera joandakoei dagokienez, asko izan ziren, eta zaleek ikuskizun politarekin gozatzeko aukera izan zuten pare bat orduz.

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **ELITE MUTILAK** | |
| 1. Jon Sard | Gasteiz |
| 2. Gorka Karapeto | Azpeitia |
| 3. Markel Mendieta | Arrasate |
| **ELITE NESKAK** | |
| 1. Ester Cruz | Zumaia |
| 2. Josebe Zarautz | Zumaia |
| 3. Maite Segurola | Azpeitia |
| **18 URTEZ AZPIKO MUTILAK** | |
| 1. Jon Beñat | Gasteiz |
| 2. Josu Viejo | Arrasate |
| 3. Iñaki Viejo | Arrasate |




Jende asko izan zen txapelketan, parte hartzen eta ikusten. JOSETXO ARANTZABAL

**Ander Garcia** > Tau saskibaloi taldeko jokalaria

# "Final Fourreko eta kopako dezepzioak ahazteko, ederra izan da liga irabaztea"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**ACB Liga irabazi berri duen Tau saskibaloi taldeko jokalaria da Ander Garcia bergararra. 19 urte besterik ez ditu eta honez gero liga txapelduna dela esan dezake. Ez du apenas jokatu, baina gertu gertutik jarraitu du gasteiztarren ibilbidea aurtengo denboraldian. Amets moduko bat bizi izan duela diosku eta ospakizunen zurrunbiloan sartuta oraindik, hurrengo denboraldiarekin amets egiten hasi da. Minutuak ahalik eta gehien da bere hurrengo erronka, Taun ez bada, beste nonbaiten.**



Ander Garciak 1,93 m neurtzen du eta hegaleko-eskolta postuan jokatzen du. Irudian, eskuratutako kopa oroigarriarekin. E.M.

**Bartzelona indartsu zegoen eta inork ez zuen espero Tauk di-da baten irabaziko zuela ligako play-offa...**

Bai, hasiera Bartzelonan partidu bat irabaztearekin konformatzen ginen, baina gauzak primeran atera zitzaizkigun han jokatutako bi partiduetan. Taldeak oso maila ona azaldu zuen, ekipo sendo bat garela erakutsi genuen eta moralki kolpe larria eman genion Bartzelonari... Horrek konfiantza handia eman zigun Gasteizeko norgehiagokari begira eta gure zaleei garaipena eskaintzeko aukera ez genuen ihes egiten utzi... Zoragarria izan da liga amaiera. Kopako finala galdu eta Final Four-eko finalerdia galdu eta gero, bageneukan zaleei poz hau emateko gogoa.

**Eguazteneko harreran, jendaurrean hitz egiten ausartu zinen**

Bai, zaleei euren laguntza eskertu nahi izan nien, euskaraz gainera. Euria ari zuen arren, jende mordoa batu zen harreran eta oso momentu hunkigarria izan zen guztiondako. Familiakoak, gertukoak izan nituen gogoan, tartean saskibaloian hasteko animatu ninduen osaba David. Parranda luzerik egin genuen gero? Buenoooo, hurrengo goizeko ekitaldi batera gau-pasa eginda agertu ginen gehienok, baina formal, opari bat jasotzea tokatzen zen-eta... Erloju eder bana oparitu ziguten.

**Eta liga irabaztearren jasotako diru-sariarekin zer egin pentsatu duzu dagoeneko?**

Ez; autoa, BMW M3 bat erosi dut aurten eta horrekin nahikoa daukat oraingoz. Orain aurreztea tokatzen da.

**Orain dela gutxira arte nolabait zure idoloak izan direnekin jokatzen duzu orain. Aurtengo denbolalditik zein momentu nabarmenduko zenuke?**

Denboraldi osoa amets moduko bat izan da eta liga irabaztea zer esanik ez. Taldean egon den giroa azpimarratuko nuke. Azken baten, hori erabakigarria izan da liga eskuratu ahal izateko. Talde barruan giro ona badago, hori kantxan islatzen da eta horrela etortzen dira emaitza onak, ez dago zalantzarik. Jokalari guztiok badakigu zein den gure zeregina, eta horrez gain, ondokoari laguntzeko gertu egon gara denboraldian barrena.

**Nolakoa da Spahija entrenatzailea? Zer komentatu izan dizu urtean zehar?**

Serioa eta langilea da. Tipo jatorra, zuzena eta jokalariei exijitzen dakiena. Oso ondo gertatzen ditu partiduak eta play-offetan ere erakutsi du momentu bakoitzean sortzen diren zailtasunei erantzuten dakiela. Niri zera esaten zidan: gertu egoteko beti, partiduan sartuta, kontzentratuta egoteko, edozein momentutan sortu daitekeelako kantxara sartzeko aukera. Bestalde, zenbait unetan, taldekideei animuak ematea oso garrantzitsua da. Gauza asko ikasi ditut hor egonda.

> **"Gauza asko ikasi ditut aurten. Spahijak hau esaten zidan: gertu egoteko beti, partiduan sartuta, kontzentratuta"**
>
> **"Talde barruan giro ona badago, hori kantxan islatzen da, ez dago zalantzarik"**

**Kopako finalak eta trabatzen zaizuen Final Fourrak ihes egin eta gero, amaiera borobila eman diozue denboraldiari.**

Hala da, bai. Kopako finala gure ikusleen aurrean, Gasteizen galtzea, gogorra izan zen. Eta Final Four delakoan, Madrilen, aurkari gogorrena tokatu zitzaigun: CSKA. Hain zuzen, txapeldun geratu zen taldea. Partidu ona egin genuen azken zatira arte eta Madrilera joandako zaleei ezin izan genien Europako Kopa eskaini. Laugarren aldiz izan gara Final Fourren, baina bai, ihes egiten digun txapelketa da. Ea hurrengo denboraldian *errematatzen* dugun behingoz. Dena dela, orduko eta kopako dezepzioak ahazteko, gauza handia izan da bigarren aldiz liga irabaztea. Sei urte dira lehen liga irabazi zenetik eta bazen ordua errepikatzeko.

**Heldu berri den jokalari batendako, zer izan da harrigarriena?**

Ez dakit. Hainbeste gauza dira. Baina Belgradon, Partizanen kontrako partiduan zegoen giroa ikaragarria zen. Partidua hasi baino bi ordu lehenago pabiloia jendez gainezka zegoen, 12.000 ikusle inguru, eta hango giroa ez dut sekula ahaztuko. Galdu egin genuen partidu hori.

**Taldeko zein jokalarirekin daukazu konfiantza gehien?**

Bidaietan-eta Sergi Vidal kapitainarekin konpartitzen dut logela eta ondo konpontzen gara. Bera da lehen liga irabazi zuen taldetik jarraitzen duen bakarra. Horrez gain, Tiago Splitter, Pablo Prigioni, Simas Jasaitis edo Lucho Fernandezekin egoten naiz gehien beharbada. Kanpoan jokatzen dugunean, bezperan gauean, badaukagu ohitura bat Prigionik, Sergik, Splitterek eta laurok: izozkia jatea.

**Finalean zein izan da jokalari erabakigarriena?**

Splitter-ek sekulako partidua egin zuen lehenbizikoan eta Pete Mickealek ere primeran jokatu du. Prigionik Lakovici egin zion markaketak ere izan du zerikusia esatea zaila da. Mickeal aukeratu zuten finaleko jokalari onena eta ez dut uste erabaki hori zalantzan inork jarri duenik. Zerbaitegatik izango da.

**Beste taldeetako zein jokalarik harritu zaitu gehien?**

Marc Gasol. Bullock ere oso azkarra da.

**Hurrengo denboraldiari begira esan dizute zerbait?**

Hurrengo astean izango dugu bileratxo bat Gasteizen eta orduan ikusiko dut. Jokatzeko minutuak behar ditut: Gasteizen ez bada, beste nonbaiten, utzitaedo.... Noski, zenbat eta maila altuagoan, hobeto.

Salneurri gomendatua Penintsulan eta Balear uharteetan auto honentzako: Focus Coupe Trend 1.6 TDCi 90 ZP. BEZa, garraioa, sustapeneko deskontua, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte stockean dauden autoentzat. Eskaintza hau ez da baliagarria langile eta flotentzat. Ikusten den modeloa ez da eskaintzen dena. Focus Gama, kontsumoa: 4.3-7.1 l/100 km. CO2 emisioak: 114-169 g/km.

**Ford**Focus Berria **14.900€**

Bi zonako aire-girogailua • Abiadura-Kontrola • Egonkortasun-Kontrola (ESP) • Trakzio-Kontrola (TCS) • Frenoak ez Blokeatzeko Sistema (ABS) • CD6000 Audioa

**MUGARRI AUTOAK**

Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAGÓN

Feel the difference




# ZAHARRAK BERRI SAIOA

Aste honetan:

zaharrak BERRI



NOIZ: **Ekainak 11 eta 12**

NOR: **Irene Zenitagoia**
**Gorosti loradenda**

GAIA: **Orkideak.**

Zure intereseko **elkarrizketak, erreportajeak** eta **tertuliak** batzen dituen programa berria daukazu **GOITBn**

EGUAZTENETAN 20:15ean
EGUENETAN 13:15ean

Kutxako Urrezko Zerbitzuko kide bazara,
**SARIAK IRABAZTEKO AUKERA!**
**Deitu** programan zehar **943 00 08 34** telefonora

Goitb
Goiena Telebista

***Ikustekoa!***

Babeslea: kutxa URREZKO ZERBITZUA



**> 08001**
Ezusteko polita eman zuten mestizajean oinarritutako euren musikarekin



**> JENDETZA**
Antolatutako ekintza eta gune guztiek erantzun bikaina izan zuten



**> OREKA TX**
Ikuskizuna estreinatu zuten, herri nomaden izpiritua abiapuntu hartuta



**ALPHA BLONDY** Reggae musikaren izarrak lepo bete zuen egubakoitzean San Martin plaza.

JOSETXO ARANTZABAL

# Musikak eta jendeak bete dute Mundumirarik arrakastatsuena

San Martin plaza igaroezin geratu zen kontzertuekin; Alpha Blondyren arrakasta itzela izan zen

Kale animazioarekin, eta azokan ere, jendetza ibili zen

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Egubakoitzean dagoeneko igarri zitekeen berezia izan behar zela aurtengo Mundumira. Alpha Blondyren deiari erantzunez, akaso, edo, aspaldiko partez euria egin zuelako, beharbada, arratsaldean giroa poliki baina etengabe joan zen berotzen. Kaleek gainezka egin barik, etengabe zebilen jendea hara eta hona, eta egun osoan eta egun guztietan egon da giroa.

Etxean geratzeko aitzakia gutxi utzi ditu aurten egitarauak. Kale animazioaz gozatzeko besterik ez bazen ere, merezi izan zuen Bergarara gerturatzea. Tandarica Orkestarreko zirku dibertigarriak egubakoitzean, eta Derviches del Cairoko dantzariek zapatuan, bi aipatzearren, zur eta lur utzi zituzten bistariak. Nagusiendako bakarrik ez, umeendako oso ondo pentsatutako egitaraua izan da aurtengoa, Aranzadi ikastolan entretenimendu nahikoa izan zuten-eta txikienek.

**IKUSKIZUNAK**

Oreka TXkoak izan ziren lehenak. Proposamen berri batekin etorri ziren Bergarara txalapartariak, iglu eta guzti. 50 lagunendako emanaldi bereziak egin zituzten pilotalekuan ipinitako denda puzgarri baten. Egubakoitzean izan zen hori, baina lehen eguneko protagonista Jamaicatik etorri zen. Lan nekeza izan zuen zapatu gauean San Martin plazatik pasatu gura izan zuenak. Jendez lepo bete zen plaza Alpha Blondy ikusteko: jarraitzailerik sutsuenak lehen lerroan – Bob Marleyren eta Jamaikako banderak haizatuz– eta kasualitatez bertatik pasatu eta gustura entzuten geratu ziren asko ere, norberak ahal zuen moduan Karibeko erritmoak jarraituz, gerriarekin ala buruarekin. Bai lehen lerroan zein azkenean, nagusi zena belar usaina zen. Zapatuko izarra Tasha's World izan zen, baina ezustekoa eman zutenak 08001 taldekoak izan ziren. Musikarik mestizoena izan zen haiek egin zutena. eta baita entzundako proposamenik interesgarrienetakoa ere.

Hala ere, denak ez ziren izan urrundik ekarritako doinu eta zaporeak. Jaialdia Bergarako trikitixa eskolako neska-mutikoek itxi zuten. Trikitixak eta Taupada batukadaren perkusio indartsuek itxi zuten Mundumira jaialdirik arrakastatsuena atzo.

**MUNDUMIRA** > BALORAZIOA

# Jaialdia handitzea pentsatzen dabiltza dagoeneko aurtengo harrera eta gero


Ezuste atsegina izan zen 08001 taldea; euren mestizaje doinuekin, zapatu gaua alaitu zuten. JOSETXO ARANTZABAL

ESANAK

**"Ikuskizunez gain, irteeretan eta bisitaldietan aurreko urteetan bezain beste edo jende gehiago ibili da aurten"**

**"Dagoeneko finkatu egin da Mundumira eta, datorren urtera begira, handitu daitekeelakoan gaude"**

**"Talde ezezagunekin ere jende ugari agertu da kontzertuetara, eta gugan konfiantza dutela erakusten du horrek "**

**Kike Zinkunegi** > Antolakuntza

Egin diren lauretatik, aurtengoa jendetsuena izan dela diote antolatzaileek

Ekintza guztietan izan da jendetza, eta jaia handitzeko garaia izan daitekeela uste dute

**JON BEREZIBAR** > BERGARA

Datorren urterako, jaialdia handitzeko asmoa planteatzen amaitu zuten atzo Mundumirako antolatzaileek. Pozarren daude egondako jendetzarekin eta bisitarien parte-hartze mailarekin. Begibistakoa izan zen erantzun bikaina San Martingo kontzertuetan, goraino bete zuten-eta egubakoitz eta zapatuko taldeek. Baina bisitari kopuru handia ere baieztatu zitekeen janari postuetan zeuden ilara luzeetan. Bisitaldiak eta irteerak ere arrakastatsuak izan dira. Esaterako, Gorla eta Soraluze inguruetara egindako mountain bike irteeran 140 lagunek hartu zuten parte eta ibilbidea hasieratik amaierara egin zuten txirrinduzaleek, 44 kilometrokoa izanda ere .

Alpha Blondyren kontzertua izan zen jendetsuena, zalantza barik. Hala baieztatu digu Kike Zinkunegi antolatzaile taldekoak, baina zehaztuz gainontzekoetan ere jende asko egon dela "nahiz eta talde ezezagunak izan". Zinkunegik azaltzen duenez, "horrek erakusten du jendeak gugan konfiantza daukala". Jarduera guztiek izan dutela harrera paregabea dio prentsa arduradunak. Gune guztiak jendez beteta zeudela ikusita, "datorren urtean jaialdia handitzea pentsatzen" dabiltzala aurreratu du. "Diru iturriak handitu eta jaialdia handiagoa egin daitekeela iruditzen zaigu", dio arduradunak; "Mundumira dagoeneko Debagoienean finkatu egin den jaialdia da".

Giro bizi horren aurrean, bake apur bat ekartzera etorri zirenak Tibeteko monjeak izan ziren. Jende askoren arreta piztu zuten horiek. Batetik, Aroztegin, mandala bat eta kantu saioak egin zituzten bakearen alde eta, bestetik, haien herrialderako laguntza materiala jasotzeko, postu bat ipini zuten. Jendez gainezka egon ziren biak.


Aurten, lehenengo aldiz, gazta lehiaketa egin dute. JOSETXO ARANTZABAL

## Eskoriatzan, XII. Ferixie egin zuten eta, eguerdi parterako, asko animatu zen azoka

Goiza makal samar hasi bazen ere, eguerdirako animatzen joan ziren kaleak zapatuan. Eguerdian salmentek ere gora egin zutela azaldu du Olatz Arresek, Arizmendik antolatzen duen azokaren koordinatzaileak, "jende asko poltsekin ikusten" hasi ziren-eta orduan. 80 postutik gora ipini zituzten, elikagai, artisau eta mota askotako langintzekin. Txorimalo lehiaketa ere egin zuten Jose Arana guneko neska-mutikoek. Gurasoen laguntzarekin, Pirritx taldeak irabazi zuen, eta laguntza barik, Agirretarrak taldeak. Txorimalorik originalenaren saria ere eman zuten, eta lore fresko ederrekin egindako Dragoi Bola Z taldeak eskuratu zuen saria. Gazta lehiaketa ere egin dute aurten, lehenengo aldiz. Herritarrek bozkatu ahal izan zuten, eta Mila Goñik irabazi zuen lehen saria. Herriko saltokiak eta artisauak ere saritu zituzten. Zubispe baserria saritu zuten produktu onenak ekartzeagatik, eta, artisauen sailean, Maximo Iñurritegi artile-lantzailea nabarmendu zuten. Kanpotik etorritakoen artean, Jokin Arrospidek ipini zuen saltokirik dotore eta originalena. Zozketari dagokionez produktuekin otzara bi banatu dituzte: handia 5.734 zenbakiari dagokio, eta txikia, 4.714ari. Ordezko zenbakiak 6.774 eta 6.917 dira.



Tandarica Orkestar. J.A.



Umeek zirkoko akrobaziak ikasteko aukera izan zuten zapatuan. NEREA MENOR



Azokako te eta infusio belarren saltokia. J.A.



Bergarako trikitilariak. J.A.



*Los Naribol* lana, Artea antzerki taldekoen eskutik. JOSETXO ARANTZABAL



Alkora taldeak erritmoa ipini zuen zapatuan kaleetan. J.A.

**Harkaitz Martinez** > Oreka TX

# "Nomadek badakite non hasten diren eta non dabiltzan, baina ez dakite ziur nora doazen eta non amaituko duten; horretan datza gure ikuskizunak ere "



JON BEREZIBAR

**J.B.** > BERGARA

**Ikuskizuna estreinatu dute Mundumiran Oreka TX taldekoek. *Nömadak TX* film arrakastatsuari moldaketa berria egin diote, eta formatu berria eman. Nomada izpiritu ibiltariari helduz, edonora eroan daitekeen iglu puzgarri erraldoia darabilte areto moduan. Barruan, indiar tipi itxura hartzen du igluak, eta bertan egiten dute emanaldia bi txalapartariek. Ikusleak inguruan borobilean eserrarazten dituzte, eta eurekin batera bidaia egitera gonbidatu.**

**Leku oso berezia aukeratu duzue ikuskizun berrirako, ezta?**

Oso berezia da, bai. Aukeratzeko arrazoia izan da herrialde nomadetan ibili ginela gure bidaia haietan. Etxeetan jaso gintuzten -igluetan, tipietan, txaboletan, khaimatan...- eta ikusten genuen etxebizitza nomadak berak bere baitan eraman beharreko zera dela. Gure kasua ez da hori, baina bai gure musikarena. Musikari begira, guk espazio bat behar dugu. Espazio autogestionatua behar dugu toki batetik bestera mugitu ahal izateko, eta hau da kontzertu multimedia baterako aukerak eskaintzen dituena eta, era berean, furgonetan sartzen den eszenatokia da.

**Kontzertu multimedia dela diozu. Txalapartaz gain, zer eskaintzen duzue?**

Bidaia hartan bizi izandako esperientziak jendeari gerturatzen saiatzen gara ikuskizun honen bitartez. Hain zuzen ere, herrialde horietako guztietako pertsonaia batzuk birtualki azaltzen dira, eta interakzioa bilatu gura dugu: begiraden bitartez, musikaren bitartez...

**Hau berez, barrutik, tipi bat da. Ez dago ikusleentzako jarlekurik ezta eszenatokirik ere aurrean. Nola egingo dituzue kontzertuak?**

Akaso, berezitasunik handiena horixe da. Ez gaude ohituta kontzertu bat jotzera joan eta publikoa aurrez aurre eta hain gertu ikustera. Hemen denak borobilean eserrarazten ditugu, eta 55 bat pertsona kabitzen dira. Bakoitzari kuxintxo bat ematen diogu eta, denak jesarri ostean, ikuskizunarekin hasten gara.

**Ikuskizun nomada da; hortaz, leku askotara eramateko asmoa izango duzue.**

Hori da espero duguna. Egubakoitzean egindakoa da estreinua. Hor hasiko da gure ibilbidea. Nomadek badakite non hasten diren, non dabiltzan, baina ez dakite ziur nora doazen eta non amaituko duten bidea. Gure kasuan, hemen, Bergaran, hasten dugu ibilbidea eta hemen ekingo diogu ibilbideari, baina ez dakigu non bukatuko dugun edo bidaia honek nora garamatzan.

IKUSKIZUN NOMADA

**"Bidaia hartan bizi izandako esperientziak jendeari gerturatzen saiatzen gara ikuskizun berrian: begiradekin, musikarekin..."**

**"Nomadek iglu, tipi edo khaimatan hartu gintuzten moduan, guk ere ikusleak eszenatoki mugikor honetan hartzen ditugu"**

**"Ikusleak gure inguruan borobilean esertzen dira, eta hori da berezitasuna, ez gaude-eta ohituta entzuleak aurrez aurre izaten"**


DESKONTU
OPERAZIOA
Carrefour
www.carrefour.es
Maiatzaren 29tik ekainaren 10era
Bermatua:
%10etik
%80ra
arteko deskontua
zure marka gustukoenen 10.000
produktu baino gehiagotan.
EXPO
ZARA
GOZA
2008
Orain
hurbilago
Carrefour Gorbeia

ASTE BUKAERA...

## Pedro Lasagabasterrekin



Pedro Lasagabaster Eskoriatzako ferixan egon zen zapatu goizean, postuak ikusten. JOSETXO ARANTZABAL

# "Zapatuan ferixan egon nintzen, bestela, semeekin egoten naiz aste bukaeretan"

Eskoriatzako alkatea eta mankomunitateko presidente ordea, baserritarra eta biologoa da

Musika klasikoa entzuten du autoan eta etxean, eta egun Mozarten biografia du eskuartean

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

Pedro Lasagabaster (Eskoriatza, 1970) Eskoriatzako alkatea da. Hain zuzen, 2007ko Udal hauteskundeetan heldu zen alkatetzara, ordura arte politikan ezer gutxi eginda zuen arren. Era berean, Debagoieneko Mankomuniateko presidente ordea da, eta Ino Galparsoro kartzelan dagoenetik, presidentearen ardurak bere gain hartu ditu. Hala, astelehenetik egubakoitzera arteko orduak, udaletxean eta mankomunitaten ematen ditu. "Nire astegunak oso ohikoak dira. Jeneralean, goizean udaletxera joaten naiz, hango kontuak antolatzera. Gainera, batzordeekin biltzen naiz arratsaldeetan. Udaleko gaiek denbora asko eskatzen didate. Orain, gainera, Ino Galparsorok egiten ez dituen lanak egiten ditut. Hortaz, ia egunero nago erlojuari begira hitzorduetara berandu ez iristeko", dio Pedro Lasagabasterrek.

**BASERRIKO LANAK**

Eskoriatzako alkatea den arren, ez du ahazten, lanbidez baserritarra dela, eta han ere lan asko dagoela. "Etxekoen laguntza ezinbestekoa dut, haiek arduratzen dira-eta baserriko lanekin. Baina, niri ere gustatzen zait behiekin eta txahalekin ibiltzea". Baserritarra izanik, aste bukaera batzuetan, azoketara joaten da. "Zapatuan Eskoriatzako ferian egon nintzen. Postu eta produktu ezberdinak ikusteko aukera izan nuen. Gainera, hiriburuetako azoketarako joatea gustatzen zait", dio Lasagabasterrek.

**JON ETA FELIXEN KONTURA**

Erlojuari begiratu barik eta sakelekoa itzalita, familiarekin egotea gustatzen zaio aste bukaeratan, lasai. " Bi seme txiki ditut, 2 urteko Jon eta urte beteko Felix, eta beraiekin egotea gustatzen zait. Astegunetan, denbora gutxi eskaintzen diet. Dena den, ahalegintzen naiz, egunero, beraiekin bazkaltzen eta afaltzen". Paseatzea gustatzen zaio, eta askotan joaten da erosketak egitera familiakoekin. Garai batean futbol jokalaria izan zen arren, esan digu kirolik ez duela egiten, eta ez duela asmorik Eurokopa ikusteko. "Futbolari behar baino garrantzia gehiago ematen diote. Niri behintzat, ez dit lorik kentzen futbolak, badira beste gauza batzuk askoz garrantzitsuagoak direnak".

Gehiago gustatzen zaio musika entzutea edo liburuak irakurtzea, eta baterako zein besterako, *klasikoak* gustatzen zaizkio. "Musika autoan eta etxean entzun dut, eta jeneralean musika klasikoa entzuten dut, besteak beste, asko gustatzen zait Wolfgang Amadeus Mozart. Horren harira, esku artean dudan liburua Mozarten biografia da", esan digu Eskoriatzako alkateak.

**OPORRAK, UZTAILEAN**

Pedro Lasagabasterrek uztailean hartuko ditu oporrak, eta ezer lotu ez duten arren, hondartza eta mendia konbinatuko dituela esan digu. "Nik natura maite dut, baina semeek ondo pasatzen dute hondartzan. Hortaz, bietara egingo ditugu irteerak".

### "Debagoienean daukagun natura ikusgarria da: bisitatu beharreko toki asko ditut"

Pedro Lasagabaster alkatea eta baserritarra izateaz gain, biologoa ere bada. Alde batera utzita ditu biologo lanak, baina naturarekin zerikusia duen guztia maitea du. "Garai batean, naturaren gaineko txostenak egiten nituen, baina orain ez daukat denborarik". Dena den, paseatzera joaren denean, gozatu egiten du. "Gehien, baso naturalak ederrak gustatzen zaizkit. Debagoienean ez daude asko, baina daudenak ederrak dira, eta beste mota bateko paraje politak ditugu, Udalatxeko artadia edo Arantzazuko hariztiak besteak beste. Gainera, ordu batera kostaldea daukagu, eta bertan, toki ikusgarriak daude".

Paraje asko ezagutzen dituen arren, oraindik bisitatu beharreko asko dituela esan digu. "Ez daukat zerrenda bat idatzita, baina, buruan ditut zehaztuta ikusi beharreko tokiak zeintzuk diren. Naturak ematen dit biologiarekin hartu-emanetan jarraitzeko aukera", dio.

## gazte zerbitzuak

### BEKAK

**> Administrazio Publikoa.** IVAP, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea. Unibertsitate titulazioa duten pertsonei Administrazio Publikoen alorrean prestakuntza osagarria eskaintzea da beka hauen helburua . Epea: ekainaren 17a.

### LANA

**> Prebentzio teknikaria, bi turismo teknikari, enplegu eta garapeneko agentea.** Debagoieneko Mankomunitatea. Epea: ekainaren 16.

**> Euskaltegiko irakaslea.** Bergarako Udala. Euskaltegiko irakasleen lan poltsa. Epea: ekainaren 11.

**> Erdi Mailako Teknikariak.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Foru Aldundiaren kanpainetan laguntzeko erdi mailako teknikarien aldi baterako 21 plaza betetzeko lan-poltsa osatzeko hautapen probetarako deialdia. Epea: ekainaren 16a.

**> Hezitzaileak.** Elgoibarko Izarra Kultura Elkarte. Hezitzaileak behar dira Elgoibarko ludotekarako eta gaztelekurako. Epea: ekainaren 13a.

### EKINTZAK

**> Gazte epaimahaikideak.** Donostiako Nazioarteko Zinemaldia. Gazte epaimahaikideen hautaketa 2008ko irailean egingo den Donostiako Nazioarteko Zinemaldirako, 17 eta 21 urte bitarteko gazteak. Epea: ekainaren 15a.

### LEHIAKETAK

**> Graffitiak.** Topagunea; Euskara Elkarteen Federazioa. Euskal Herriko V. Graffiti Lehiaketa. *Spraikada*-n 16 urtetik gorako gazteek har dezakete parte, bakarka edo taldeka. Epea: ekainaren 27a.

**> Kontaketa laburrak.** Eusko Jaurlaritza. Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza. 16 urtetik gorako gazteek parte har dezakete, Gazte Txartela baldin badute. Epea: uztailaren 18a.

**> Argazkilaritza.** Irungo Argazkilaritza Elkartea. XXII: Irun Hiria Argazki Lehiaketa Herrikoia 2008. Epea: ekainaren 13a.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguenerarte (18:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikular zein profesionaletan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Etxebizitza salgai Nardeaga kalean. 945 44 51 01.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Berriztatua eta guztiz jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 943 53 22 19

**Bergara.** 75 metro koadro. Bigarren solairua. Hiru logela, trastelekua eta arropak esegitzekoa. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkalekurekin. Eguzkitsua eta leku lasaian. Berritua eta egoera onean. 216.000 euro. 943 76 07 50

**Bergara.** 80 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Balkoi handia. Dena kanpoaldera. Berogailu eta igogailuarekin. 652 76 86 68

**Bergara.** Basalgo auzoan baserria salgai, lursailekin. 610 73 65 40 edo 943 76 19 28

**Elgeta.** Etxebizitza salgai. Ia berria. Hiru logela, bi bainu, sukaldea, egongela, jangela. Jantzita. Oso eguzkitsua. 205.000 euro. Telefonoa: 664 79 64 97

**Oñati.** 105 metro koadroko duplexa salgai. Lau logela, sukaldea, egongela eta bi komun. 330.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39

**Oñati.** 68 metro koadroko etxebizitza salgai herri erdian. Bi logela,sukaldea eta komuna. Igogailuarekin. Terraza, garajea eta ganbara. Guztiz jantzia. 608 34 85 23

**Oñati.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai Moyua kalean. Hiru logela, ganbara, sukaldea, egongela eta komuna. Berritua. 228.384 euro. Telefonoa: 655 90 97 72

**Oñati.** Etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldea eta komuna. Guztiz eraberritua. 210.000 euro, negoziagarriak. 635 71 41 39

**Oñati.** Sukaldea, hiru logela, bainugela eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua. Guztiz berritua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70

### 103. ERRENTAN EMAN

**El Puerto de Santa Maria** (Cadiz). Bi logelako apartamentu berria ematen da errentan udarako. Valdelagraman. 70 m2. Bi terraza (bat handia). Hondartzako bigarren ilaran. 605 43 29 31

**Granadako** Alpujarran natura ingurune paregabean zortzi lagunendako etxea errentan. Terraza handia ikuspegi ederraz. Prezio interesgarria. Argazkiak hemen: www.blogak.com/losmonteros. Harremanetarako: jasonemendizabal@euskalnet.net edo 943 79 42 33

**Jaca.** Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa, bi igerilekurekin (nagusia eta umeentzat) eta bi tenis pistarekin. Inguruan umeendako jolastokia. 665 73 95 65

**Peñiscola (Castello).** Lau edo sei pertsonarentzako moduko apartamentua errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekuarekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

**Torrevieja.** Apartamentua errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik hur. Bi logela, terraza, solariuma, garaje itxia eta elkarteko igerilekua. Ekain, uztail eta abuztuan. 400 euro asteko. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate,** Eskoriatza edo Aretxabaletan etxe txikia errentan hartuko luke neska batek. 635 12 87 82.

**Arrasate.** Abuztutik, eta urteberako, Arrasaten errentan hartzeko etxe bila gabiltzan bi pertsona gara. Montse. 636 44 24 40.

**Arrasate.** Etxebizitza behar da errentan Arrasaten irailetik aurrera, hiru lagunentzako. 665 73 12 05 edo 669 85 87 78.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko luke familia batek. Lehenbailehen.Telefonoa: 647 10 58 85.

**Debagoiena.** Autobideko lanetan dabilen langile taldeak etxebizitza hartuko luke errentan (5-6 lagun). 687 26 11 44.

**Donostia.** Etxebizitza hartuko nuke errentan Donostian, abuztuko lehenengo eta azken asteetan. 677 98 54 91.

**Gasteiz.** Etxebizitza bila gabiltza, ahal bada uztailean sartzeko. Gutxienez hiru logelakoa. 635 75 25 67.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 71 35 83.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. 616 05 97 92.

**Bartzelona.** Datorren ikasturterako neskak behar dira etxea osatzeko Bartzelonan. 615 00 49 70.

**Debagoiena.** Etxebizitza partekatuko nuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

## 2/ GARAJEAK

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Masterreka edo Santa Marina inguruan. 669 63 93 29.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**BERGARA**

**Zapelaitz taberna errentan ematen da.**
**943 76 12 86**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Urte askorako lana da. 688 68 18 76.

**ARETXABALETA**

**Sukaldaria behar da plater konbinatuak, ogitartekoak eta pintxoak egiteko.**
**647 05 42 75**

**ARETXABALETA**

**Obra teknikaria edo antzekoa behar da. Bidali datuak 40 posta kutxara.**

**OÑATI**

**Saltzailea behar da okindegi-gozotegirako.**
**606 33 44 89**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu adinekoak zaintzeko: garbitasun lanak egin eta paseatzera ateratzeko. Edo arratsaldetan umeak zaintzeko. 943 53 33 92.

**Bergara.** Emakume esperientziadunak adineko pertsonak zainduko lituzke. Orduka zein etxean bertan bizi izanda. 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakumea zerbitzari lanak egiteko prest, tabernan edo jantokian. Atariak garbitzeko prest ere. 671 71 90 03.

**Debagoiena.** 25 urteko mutil arduratsua lanerako gertu. Aparejadore titulua daukat. Tabernatan zein nagusiak zaintzen ere lan egingo nuke. Luis Alejandro Rodriguez. 943 71 60 97 edo 943 53 37 86.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua etxeko lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izanda. Telefonoa: 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu umeak zaindu edo garbitasun lanak egiteko: etxeak, tabernak, bulegoak... 696 11 01 94 edo 943 77 16 73.

**Debagoiena.** Emakumea garbiketa lanak egiteko gertu. 600 89 89 03.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edo umeak zein nagusiak zainduko nituzke. Zerbitzari ere lan egiteko prest nago. 646 56 80 22.

**Debagoiena.** Hamabost urteko esperientzia duen neska zerbitzari lanetarako gertu. 663 65 57 31.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Eraikuntzako goi mailako ikasketak burutu berri ditut eta Arkitektura egiteko beharrezko oinarri matematiko, fisiko eta mekanikoak behar ditut. Batxilergoko errepasoa arkitekturari begira. 652 70 35 29.

**Bergara.** First titulua duen ingeles irakaslea behar dut. 943 76 40 54.

**Debagoiena.** Inteligentzia artifizialeko eskola partikularrak hartuko nituzke udan. 652 70 49 10.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen dira. Uztailean eskola bereziak.Maila guztiak. 630 71 35 83.

**Bergara.** Irakasle ikasketak dituen neska udan eskola partikularrak emateko prest, 6-13 urteko haurrei. 650 23 34 98.

**Oñati.** Esperientzia handiko irakasleak eskola partikularrak ematen ditu, udan eta kurtso osoan. 943 78 28 43.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Sea Dinghy 2, 2.8 JTDI. 2002koa. 125 ZP, aire girotua, toldoa, bizikletak eramatekoa (3), literak. Sei bidaiarirentzat. IAT 2008ko apirilean. Bateria eta gurpil berriak. 92.000 km. 24.000 euro. 605 70 45 50.

**Karabana salgai.** Roller Aloha 410 D. 3.000 euro, negoziagarriak. 943 78 16 88.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Basurdeak** salgai Orozkon. 20 euro. 678 72 75 72.

**Brako aleman** arrazako txakurkumeak salgai. LOE zenbakidunak. Deitu telefono honetara: 685 69 84 99.

**Setter** arrazako txakurkumea salgai. Jaio berria. Ekain erdialdean emateko. 635 20 18 56.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Basalurra** salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. 678 72 75 72.

**Baxu elektrikoa** salgai. ESP LTD TA 600Tom Araya. Beltza. Ia berria. Funda eta guzti. 650 euro. Jon. Deitu telefono honetara: 609 41 78 97.

**Bikientzako motxila** salgai. Weego Twin modeloa. Oso ondo dago. Lehen egunetik 6 hilabete bete dituzten artean ibiltzekoa. Edozein lekutan lasai asko ibiltzeko. Deitu telefono honetara: 619 92 91 18.

**Eskusoinu** handia salgai. Tekladuna. Oso egoera onean. Kutxa barne. Prezio onean. Aukera ona euskal kulturara hurbiltzeko. Deitu telefono honetara: 658 10 59 35.

**Garajeko atea** salgai. Erabili gabe. Prezio bikainean. Neurriak: 3,16x3 metro. Gaineko finkoa: 0,50 metro. Automatismoa jartzeko prest. Puertas Nueva Castilla etxekoa. 605 75 96 11.

**Habia-ohea** zur-latazko somierduna eta bi koltxoi salgai. 150 €. Deitu telefono honetara: 656 41 00 08.

**Ilerako plantxak.** Ile apaindegian erositako Gamma Profesional ilerako plantxak salgai. Gutxi erabilita. Deitu telefono honetara: 645 72 58 41.

**Karabina automatikoa** salgai. 22 kalibrea. Ia berria. Deitu telefono honetara: 943 76 56 94.

**Karro-denda** salgai. Alpen Kreuzer. Inertziadun balaztak, autoen gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajean gordeta. 1.100 euro. Deitu telefono honetara: 615 72 47 43.

**Orbea Arin** bizikleta salgai. 2005ekoa. Euskaltel-Euskadi taldekoaren erreplika. Dura-Ace taldearekin. 54 neurrikoa. 1.700 euro. Deitu telefono honetara: 656 76 89 44.

**Ordenagailua** salgai. Hiru urte ditu.Deitu zenbaki honetara:. Deitu telefono honetara: 943 08 18 13.

**Samsung** telebista salgai. 29 hazbetekoa. Bost hilabete ditu. Oso egoera onean. Deitu telefono honetara: 618 17 30 87.

**Sehaska** salgai. Egurrezkoa. Koltxoi eta guzti. 90 euro. Deitu telefono honetara: 605 74 55 65.

**Solariuma** salgai. Lanpara berriekin. Prezioa adosteko. Deitu telefono honetara: 678 61 50 40.

### 806. GALDU

**Bergara.** Umearen jaka bakeroa galdu dut Poligonoan. Aurkitu duenak deitu mesedez. 669 63 93 29.

**Betaurrekoak.** Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu nituen Arrasaten maiatzaren 18 inguruan. Funda berde baten barruan zeuden. Deitu telefono honetara: 943 79 62 28.

**Ordularia.** Mutiko batek urdin koloreko ordularia galdu zuen Arrasaten maiatzaren 26an. Herriko Plaza eta Gazteluondo ikastetxearen artean. Deitu telefono honetara: 649 35 35 33.

**Umearen motoa** utzi nuen ahaztuta Aretxabaletako Gernika plazan. Naroa izena dauka atzean jarrita. Deitu telefono honetara: 943 53 30 39.

## ETXE AGENTZIAK

Korosti
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 $m^2$. Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 $m^2$. Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 $m^2$. Oso ondo.
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Zubieta 75 $m^2$. Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80$m^2$. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Fraiskozuri 102 $m^2$. Bi balkoi.
- Ibargarai 106 $m^2$. Duplexa.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedro eta Zubiaurren.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Arrasate:**
- Erdiko kalea 113 $m^2$. Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 $m^2$. Balkoiarekin. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi. Etxe onak.
- Etxe berriak 178 $m^2$. Duplexak eta adosatuak.

**Eskoriatza:**
- Baserria. Bifamiliarra. Berria.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 $m^2$. Terrazarekin. Ortua.
- Lezesarri. 75 $m^2$. Eguzkitsua. Erdi berritua.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 $m^2$, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, ondo.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 $m^2$, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Irizar Pasealekua 89 $m^2$, ia berria.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka, 89 $m^2$, oso ondo eta garajea.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Madura, Masterreka, Zubiaurre eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Rekalde, 100 $m^2$, oso ondo.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

## astea GOITBn

### Astelehena, 9



**> Lanbide Hastapena, erreportajean**
**21:47**

Lanbide Hastapeneko eskola zer den jakingo dugu datorren asteko erreportajean. Mekanizatu, elektrizitate eta iturgintza eskaintzen dituzte.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea-Ttipi TTapa.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Berbaire.
**16:15** Berbaire.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ikusten.
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Berriak.
**19:15** Animalia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunako.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea.
**22:15** Kirolari.
**22:45** Berriak.
**23:15** Harmaillatik.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klipa.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 10



**> Gaurkotasuneko gaiak 'Berbaire' saioan**
**21:47**

Astero bezala, gaurkotasuneko gaiak jorratuko dituzte *Berbaire* saioan Julen Iriondok zuzenduta. Martitzenean 21:47an izango da.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Horry.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Erreportajea.
**14:15** Harmaillatik.
**14:45** Berriak.
**15:15** Animalia.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Kirolari.
**16:15** Eltze beroa
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** 28 Klipa .
**18:15** Musikantoi.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak: Horry.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire
**22:15** Euskaldunok hizketan.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusmira.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Erreportajea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 11



**> Mundumirak utzitakoak Goiena Telebistan**
**21:47**

Bergaran asteburuan egin den Mundumira jaiak utzitakoak jasoko dituzte Goiena Telebistan eguazteneko *Jaiak* saioan. 21:47an izango da.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Kantari.
**14:15** Eltze berioa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Euskaldunok hizketan.
**16:15** Teknopolis.
**16:45** Berriak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Animalia.
**18:15** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Zaharrak berri.
**20:45** Berriak.
**21:15** Ikusten.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Euskal artzainak.
**22:15** Ur eta lur.
**22:45** Berriak.
**23:15** Teknopolis.
**23:45** Gaurkoak.
**23.47** Jazzmina.
**00:15** Emisio amaiera

### Eguena, 12




**> Musikaren gaineko kontuak 'Musikantoi' saioan**
**22:15**

Musika zaleok, eguenero duzue hitzordua Goiena Telebistan *Musikantoi* saioarekin. Asteotan ere musika eskainza zabala izango duzue.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Zaharrak berri.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Marazki bizidunak.
**14:15** Euskal artzainak.
**14:45** Berriak.
**15:15** Euskaldunak hizketan.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Ur eta lur.
**16:17** Eltze beroa.
**16:45** Berriak.
**17:15** Horry.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** Kirolari.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazkiak.
**19:45** Berriak.
**20:15** Kantari.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Berbaire.
**22:15** Musikantoi.
**22:45** Berriak.
**23:15** Ikusten.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Teknopolis.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 13



**> Xabier Mendiguren Elkarreko editorea**
**22:15**

Elkarreko editorea da Xabier Mendiguren. Egubakoitz honetako *Ilunpean* saioko gonbidatua da. 22:15ean haren bizitzako gora beherak GOITBn.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Ur eta lur.
**14:15** Euskaldunak hizketan.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Berbaire.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Musikantoi.
**16:15** Ur eta lur.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazkiak.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean.
**18:15** erreportajea.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Ikusmira.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Animaliak.
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Gaurkoak.
**23:30** 28 Klip.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Kontzertuetarako sarrerak zozketan, besteak beste 10:30ean**

Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen eskutik Julian Kanevsky kantariaren CDak eta ekainaren 27an Enboskada taldeak 3.60aretoan eskainiko duen kontzerturako sarrerak zozketatuko ditu irratiak.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskutik; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta, tertulia...) *Zaharrak berri* saioan, eta sexologia kontuak, besteak beste.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## gertutik



**Anartz Agirre**
Kazetaria

# "Ea horrela den, baina zail ikusten dut Reala aurten mailaz igotzea"

**MIREN ARREGI** > BERGARA

**Anartz Agirre bergararrak Leioan egin zituen Kazetaritza ikasketak. Arrasate Press-en eta Arrasate Telebistan jandun ondoren, bekadun sartu zen ETBn. Kirola da berea, eta zortzi urte daramatza ETBn kirol kontuen berri ematen. Eibar taldearen jarraipena egiten du duela sei urtetik hona, eta Pou anaien espedizioak ere jarraitzen ditu.**

**Eibar taldea jarraitzen duzu ofizioz, baina baita afizioz ere?**

Realzalea naiz afizioz, baina horrenbeste urte daramatzat Eibar jarraitzen, azkenean, jarraitzaile ere bihurtu naizela. Eibarrek gainera meritu handia du, oso aurrekontu txikiarekin eta inguruko jokalariekin egiten du aurrera eta maitasun handia diot taldeari. Igoerak, jaitsierak, momentu onak eta txarrak pasatu ditut taldearekin.

**Zer behar du Realak berriz lehenengo mailara igotzeko?**

Zail ikusten dut igoera. Ez dago bere eskutan eta zaila da. Baina uste dut falta zaiona mentalitatea dela; azken urteetan galtzailearen mentalitatea izan du, eta ea horri buelta ematen dion eta igotzea lortzen duen. Hala ere, nik zail ikusten dut.

**Pou anaiak ere jarraitu dituzu, baita mendiko eskia ere...**

Bai, mendia eta eskia asko gustatzen zaizkit eta horretan lana egitea ere bai. Gustura egin dut lana. Gainera, ez lanean, baina Pou anaiekin izan nintzen Trangon (Karakorum) eta oso esperientzia polita izan zen. Espedizio bat barrutik ezagutu nuen eta gogorra izan bazen ere asko gustatu zitzaidan.

**Kirolen gainean informatzen duzu, baina kirolik egiten al duzu?**

Bai, mendia eta eskia asko gustatzen zaizkit, eta baita bizikletan ibiltzea ere. Orain gainera, Huescako Quebrantahuesos proba prestatzen dihardut. Iaz ere egin nuen eta aurten ere bukatuko dut.

**GOITBn *Harmailatik* saioa ere aurkeztu zenuen...**

Bai, baina nahiago dut kamera atzeko lana aurrekoa baino; aukeran, ahotsa sartzea, editatzea, erreportajeak egitea... askoz gustukoago dut.

## asteko hitzorduak

### Liburu aurkezpena




BERGARA

**> 'Friego, luego existo' liburua aurkeztuko du Luis Cerronek**

Luis Cerron elgoibartarrak *Friego, luego existo* liburua aurkeztuko du egubakoitzean, Miguel Altuna institutuan, 19:00etan, Beke elkartearen eskutik. Sexu-berdintasunerako bidea umorezko ikuspuntu batetik aztertzen du.

### Jaialdia



OÑATI

**> Ikasturte amaierako jaia egingo du Elkar Hezik; txartelak salgai daude**

Egubakoitzean, Anne Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen ikuskizuna (argazkian), jokoak, rocka, trikiti emanaldia eta afari-merienda egingo dituzte; azken horretarako txartelak salgai daude Santa Marinan.

### Antzerkia



ARRASATE

**> Umorezko antzezlana egingo dute emakumezko hiru aktorek**

Emakume Txokoak antolatuta, *Teatro por no… (por no… quedarnos en casa)* antzezlana egingo dute eguenean, Kulturaten, 19:00etan. Almodovarren filmak aitzaki hartuta, umorez betetako gogoeta egingo dute hiru aktorek.

## kuxkuxeroa



Irati Agirreazaldegi

# Pantaila txikitik munduaren handitasunera

Egubakoitzean, Aretxabaletako Aterpe kultura etxean, Gu eta gutarrak musika eta bertso hotsean. **Igor Elortza**rekin eta **Unai Iturriaga**rekin gutar gonbidatua **Ines Osinaga** Goseko abeslariaren kantua. Entzuleen gosea, asea. *A capella* egin zuen lehen pasea eta hortik aurrera mikrofonoan libre desfasea. Bertsolariei puntuak ipinita edo **Josu Zabala**ren kapritxoz RIP-en bertsioarekin hasita. Gutartu zuten **Ines Osinaga** edo eurendartu beharbada. Azken aldiz taldea entzuteko aukera oraindik bada. Nahi duenak egin dezala txangoa Durangoko despedidara.

**Telebistako pertsonaia ezagunak Bergarako kaleetan ikusita asaldatu denik izan da aste bukaeran**

Txangoa; non gogoa han zangoa. Mundumirarekin gutartu dugu bai hemengoa eta baita ere hangoa.

Mundumira Bergaratik mundura begira; eta hobe, bai, horrela balitz, eta ez, egoten garen moduan, tontoen pare egotea begiratzen pantaila txikira.

Pantaila txikia utzi eta Bergarara bisita. Asko harritu eta batzuk asaldatu ere egin dira asteburuan Bergarako kaleetan **Angel Alkain** edo **Ziigy Docherty** eta **Kepa Errasti** (*Goenkale*-ko **Milena** eta **Alex**) ikusita.

Gurera ekarri digute, eskura, munduko musika eta kultura. Askok, ordea, nahiago du gertuan daukagun hura. Telebistaren urrutiko agintea hartu eta zapping egiteko ordua heldu da. *Goenkale*-tik mundura eta mundutik... Hurrengoan non izango du munduko kulturen jaiak helmuga?

## Zorion Agurrak



ARRASATE
**Aner Souto Barquero**
Ekainaren 2an, urtebetetzea. Zorionak, potxolo! Etxeko guztien eta, batez ere, Maren eta Leiren partetik. Muxu handi bat!



ARAMAIO
**Leire Arrizabalaga**
Ekainaren 3an, 5 urte. Zorionak, prexioxa! Patxo handi bat etxeko guztion partetik. Ondo pasa!



OÑATI
**Danel Iñurritegi**
Ekainaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, Polittori:zure etxekuan partetik zorionak eta 8 tirakada belarri horreittako. Muxussss, Guapisimoooo.



DEBAGOIENA
**Iñaki Leturia Guridi**
Ekainaren 3an, urtebetetzea. Zorixonak, Letu! 30 + 1 = 31
31 tirekada + 31 muxu.



OÑATI
**Ainhoa Inza**
Ekainaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, polit hori! Eguna edarto pasa ezazula ta muxu haundi bat zure etxekoen partetik.



ARRASATE
**Uxue Barrutia**
Ekainaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, Uxu! Patxo pila bat. Xabat eta Nora, din dan golo golo...



ARRASATE
**Jose Ignacio Etxebeste**
Ekainaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, aitona! Oier, Ibai, Aimar eta Jurgi-ren partetik patxo haundi bat eta etxekoen partetik egun lasai bezain atsegina pasa dezazula!



ARRASATE
**Iñaki Etxebeste**
Ekainaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak, Iñaki! On egin! Eta kontuz giltzekin! Onddoak, primerakoak! Eskerrik asko eta besarkada bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Maren Agirre Zoilo**
Ekainaren 6an, 2 urte, printxesa. Zorionak aitatxo, amatxoren eta Leire eta Nerearen partetik! Muxu haundi bat.



ARETXABALETA
**Ana Villar**
Ekainaren 7an, urtebetetzea. Zorionak, potxola! Ondo pasa eguna. Oilategiko txitatxoen partetik muxu handi bat!



ARRASATE
**Maddi Elizburu Gardoki**
Ekainaren 7an, 13 urte. Zorionak eta patxo haundi bat etxekoen partetik!



ARRASATE
**Julen Ayastuy**
Ekainaren 7an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE
**Jon Uribesalgo Aspiazu**
Ekainaren 7an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik!



ARRASATE
**Asier Laskurain**
Ekainaren 7an urtebetetzea. Zorionak, Aitor, Naniren eta Amaren etxekoen partetik.



ARRASATE
**Nelson Ferreira**
Ekainaren 8an, 11 urte. Zorionak eta patxo asko zure familiaren partetik. Oso ondo pasa eta pintxoren batera edo gonbidatu!



ARRASATE
**Elena Kortabarria**
Ekainaren 9an, 8 urte. Zorionak 2T gelakoen partetik!



ARETXABALETA
**Arkaitz Kerejeta Abril**
Ekainaren 10ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Zure aitaamaren eta Ainhitzeren partetik.



BERGARA
**Maddi Goenaga**
Ekainaren 11n, 7 urte. Zorionak, etxekoen partetik.



BERGARA
**Julen Gorosabel**
Ekainaren 11. 11 urte. Zorionak eskalatzaile! Etxekoen partetik, bereziki Maider.



ARRASATE
**Plazi Garcia**
Ekainaren 8 urtebetetzea. Zorionak, ama! Ondo pasa eguna etxeko guztien partetik. Patxo handi bat.



ESKORIATZA
**Andoni Uribe-etxebarria**
Ekainaren 8an, urtebetetzea. Zorionak eta Urte Berri On. Laneko lagunen partetik. Ah... eta pagau kafiek. 0,1€ bakoitza.



ARETXABALETA
**Jabier Etxenausia**
Ekainaren 11n. Zorionak eta urte askotarako, aitaita! Ondo-ondo pasau eguna. Patxo haundi bat. Araitz.



DEBAGOIENA
**Mikel Elortza**
Ekainaren 12an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat eta ondo pasau zure egunean. Zure familiaren partetik eta bereziki Aneren partetik.



OÑATI
**Anje Arlanzon**
Ekainaren 14an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasa eguna eta muxu handi bat etxekoen partetik!



OÑATI
**Ibai Cano**
Ekainaren 15ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasa eguna, etxekoen eta lagunen partetik.



ARRASATE
**Marisa del Pozo**
Ekainaren 11n, urtebetetzea. Zorionak zure ikasle txikien eta lankideen partetik. Ondo-ondo pasa eguna!



OÑATI
**Garazi Irazabal Plazaola**
Ekainaren 8an, urtetxo bat. Zorionak etxeko guztion partetik eta bereziki ahizpa Marenen partetik. Patxoak!



ANTZUOLA
**Fernando Lete**
Ekainaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, datorren urtian piszinara juango ga. Zure Marisorginak.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:
**Arrasate** Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.
**Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.
**Oñati** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Aretxabaleta:** Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.
**Aramaio:** Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22.
**Elgeta:** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
**Antzuola:** Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120 euro**. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).**



ESKER ONA

## Joxepa Otaduy Ezpeleta

Angel Etxaberen alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 26an, 90 urte zituela



Sendiak eskerrik beroenak eman nahi dizkie, haren heriotzarengatik, doluminak eta laguntza agiriak erakutsi dizkioten guztiei.

Arrasaten, 2008ko ekainaren 6an.

ESKELA

## Bixenta Agirre Kortabarria



Lehen urteurreneko meza ekainaren 15ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.

—

*Iraganak, orainak eta etorkizunak bat egiten duten lekuan berriro elkartuko gara. Bitartean, beti izango zaitugu gure bihotzean. Gero arte eta muxu bat, Bixen.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.



**Kirol Egokitu Jaia.** Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, Kirol Egokitu Jaia izan zen zapatuan Oñatin. Zubikoa kiroldegiko frontoian askotariko kirolak egiteko aukera izan zuten ezinduek eurendako propio gertatutako txokoetan. Ohe elastikoetan saltoka ibili ziren batzuk, igelaren jokoan beste batzuk, golfean, boccia-n, voley egokituan, kanastara diskoak sartzen eta bestelako jolasetan gustora pasatu zuten goiza. 40 bat lagun.





**Aramaioarrak bertsotan.** Zapatuan jokatu zen Gasteizko Armentia ikastolan Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finala. Finalisten artean ziren lau aramaioar: Antton Karretero, Beñat Zalakain eta Maria Izaga txikietan; eta Xabier Igoa handien mailan. Bat-batekoan Ainhoa Comas izan zen txikietan txapeldun, eta Ekaitz Samaniego, handietan. Aramaioarrak idatzizkoan ibili ziren fin, eta bi txapel ekarri zituzten etxera: Maria Izagak, txikietan, eta Xabier Igoak, handietan.




**Monteko porra.** Arrasateko Monte tabernak Italiako Giroaren harira egiten duen porrak badu irabazlea. Hernaniko Ixiarrek 6.900 euro eskuratu ditu; bigarren saria Bizkaira joan da *Kabrito*-rendako (4.300 euro) eta hirugarrena Arrasateko *Yogoke*-k jaso du (2.163 euro). Monte tabernaren hurrengo porra uztailaren 8an jarriko da abian Frantziako Tourrarekin.

**Patin Sugea.** Aretxabaletako Iralabarri plazan egin zuten egubakoitz arratsaldean Patin Sugea 35 lagunek. Gehienak neska-mutiko txikiak, helduekin ibili ziren patinetan. Bata besteari helduta ilara osatu zuten suge itxuran eta plazan ibili ziren. Patinak soinean zituztela aprobetxatuz irristaketako beste jolas batzuk ere egin zituzten umeek.





**Dantza soltean irabazle.** Bergarako bi bikotek irabazi dute Leioan aste bukaeran jokatutako dantza solteko txapelketa. Erakustaldi polita egin ostean, gazteen mailan Haritz Arrillaga eta Amaia Bolinaga (eskuman) izan dira txapeldun eta helduen mailan, Mikel Igartua eta Ibane Baseta (argazkian ezkerrean). Helduek Seguran dute hurrengo hitzordu garrantzitsua, han jokatuko baitute Euskal Herriko dantza solteko txapelketa.

## jaiotakoak



**Malen Elkoro Arrese**
Bergara > 3,170 kilo. Maiatzaren 30ean. Gurasoak: Nerea (Bergara) eta Andoni (Bergara). Argazkian, Malen jaioberria, sehaskan.



**Aimar Hurtado Mendez**
Arrasate > 3,360 kilo. Ekainaren 6an. Gurasoak: Pilar (Aretxabaleta) eta Alvaro (Arrasate). Argazkian, Aimar jaioberria, gurasoekin.



**June Ferreira Tejero**
Arrasate > 3,400 kilo. Ekainaren 4an. Gurasoak: Laura (Aretxabaleta) eta Mikel (Aretxabaleta). Argazkian, June jaioberria, aitarekin.



**Elene Bolinaga Arregi**
Bergara > 3,600 kilo. Ekainaren 4an. Gurasoak: Maider (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Elene jaioberria, amarekin.



**Iker Abula Ralsar**
Arrasate > 3,800 kilo. Ekainaren 5ean. Gurasoak: Maria (Bolivia) eta Gustavo (Bolivia). Argazkian, Iker jaioberria, amarekin.



**June Romero**
Bergara > 3,250 kilo. Ekainaren 6an. Gurasoak: Lorea (Bergara) eta Ruben (Aretxabaleta). Argazkian, June jaioberria, amarekin.



**Lur Ruiz Martin**
Oñati > 3,200 kilo. Ekainaren 6an. Gurasoak: Fatima (Oñati) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Lur jaioberria, aitarekin.



**Unai Hormaetxea Arriaran**
Aramaio > 2,900 kilo. Ekainaren 5ean. Gurasoak: Bego (Aramaio) eta Ramon (Aramaio). Argazkian, Unai jaioberria, amarekin.



ASTELEHENEKO
**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2008-06-09

**Edurne Ormazabal** > Eitb.com-eko zuzendaritzako kidea

# "Publizitatea saltzen ez naiz batere abila"

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

**Edurne Ormazabal tolosarra da, baina Donostian bizi da aspalditik. Euskadi Gazteko arduraduna izan da luzaroan, baina aspaldian *Eitb.com*-eko arduradunetako bat da. Horrez gain, urtero Donostiako Zinemaldian lan egiten du.**

**Anai-arreba ugari zarete eta zeu nagusiena. Ondo hezi zenituen txikiak?**

(Barre) Bazeuzkaten aita eta ama. Egia da zaharrena izateak eragina duela, baina tarte txikia daukagu gure artean. Hiru zaharrenoi tokatu zitzaigun besteen kargu egitea, eta guztiak oso ondo daude.

**Zer ikasi zenuen Donostiako Herri Irratian Josetxo Lizartzarekin, oraindik ahaztu ez duzuna?**

Komunikazioaren esanahia, komunikatzea esatari izatea baino gehiago dela.

**Sasoi baten *Deia* egunkarirako Tolosako berriemailea izan zinen. Zer nolako esperientzia izan zen?**

Oroitzapen onak ditut. Esperientzia txar bakarra izan zen Tolosako jai batzuetan publizitatea saltzen ibili behar izan nintzela. Orduan konturatu nintzen horretarako ez nuela balio.

**Behin esaldi hau esan zenuen: "Donostiako Zinemaldiak neure burutapen eta gabezien kontra borrokatzeko aukera eman dit".**

Baliteke. Inoiz ez da erraza halako agertoki batera irtetea, beti egoten da beldur eta urduritasun apur bat. Baina hori gainditzeak ziurtasun gehiago ematen du, eta horrekin, beste batzuekin moduan, ikasi egiten da.

**Zer da golfa zuretzat?**

Erronka bat, ihesbide bat eta baita dibertimendu bat ere. Norberak bere buruaren kontra egiteko modua da. Asteburuiro joaten naiz, baina eguraldi txarra egiten badu paso egiten dut.

**Joaten zara anaiarekin eskiatzera?**

Txikitan bai. Aita gaztetan hasi zen eskiatzen, eta gerora anai-arreba zaharrenak eramaten gintuen berarekin. Nik abiadura hartzen nuenean ikaratu egiten nintzen, eta 15 urte nituenetik-edo ez naiz berriro joan. Anaiak, berriz, bai, jarraitu du eta txapelduna da.

***Katu kale* eta Euskadi Gaztean ibili ostean, musikaz ase bukatu zenuen?**

Ez, baina egia da oso desberdin bizi izan dudala musika kanpotik edo barrutik. Hala ere, musikak arrasto handia utzi du nigan, hori ez da ahazten.

TEST-A

**Herria:** Tolosa. **Adina:** 44 urte. **Ikasketak:** Psikologia. **Zaletasunak:** Zinema, irakurtzea eta golfa. **Bete duzun amets bat?** Ez dakit, ez naiz oso ameslaria. **Nora joango zinateke bidaian?** Chiloera. Gustura joango nintzateke berriro. **Liburu bat?** Manuel Mujika Lainezen *Bomarzo*. 18 urterekin irakurri nuen eta ez dut ahaztu. **Internet sailean lanean zaude. Badaukazu blogik?** (Barre) Ez. Denbora eta kontatzeko gauzak falta zaizkit.



**ZINEMALDIA** Donostiako Zinemaldian ikusten dugu urtero Ormazabal. EITB

## ai, ene!



**"Haizeak bidali du...**

...handikan honuntza", dio bertso ezagun batek, eta *Hiru Txerritxo*-en ipuinean bezalaxe, haizeak putz egin orduko behera eroriko da irudiko egurrezko etxea ere. Gurean ez dago tornadorik, baina eguraldia aldakor dabil oso.

http://www.yupifotos.com

## biharamuna

**Oier Bolibar**

### Apusturik egin nahi?

Mundumira izan dugu asteburu honetan Bergaran, munduko kulturen jaia alegia. Ez dakit mundua jarri duen Bergarara begira, edo bergararrok jarri gaituen mundura begira. Edo agian, ez bata ez bestea. Izan garenok gozatzeko aukera izan dugu, behintzat.

Jakin nahiko nuke ba dagoen begirik mundua bere osotasunean ikuskatuko duenik. Edo aukerarik izango genukeen munduaren errotazio mugimendua geldiarazi, mundutik jauzi egin eta distantziatik mundua bere hortan ikuskatzeko, bere eduki osoa behatuz, aztertuz, hautemanez eta ulertzen saiatuz. Non dagoen, nortzuk osatzen duten, zer osatzen duten, agian zergatik…



Jakin badakigu mundua oraindik behintzat ez dela gelditu ko, jakin ere badakigu mundutik jauzi egin arren eta atmosferaz haratago ikuskatzeko aukera izan arren, bere horretan bakarrik gelditzen dela, edukia barneratu eta ulertzeko aukerarik gabe.

Baina behar dugu mundua ezagutu, mundua egin eta osatu. Zeren osatzen dugunok egiten dugu. Gure esku dago. Kulturak elkartzea eta partekatzea pauso bat litzateke. Mundumira ere bai.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +18 | +20 |

Eguna hodeiekin eta urdingunekin hasi arren, goibeltzen joango da. Arratsaldean, zaparradak ugariagoak izango dira.

www.euskalmet.euskadi.net




Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) I KODEA

Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) I BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) I BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) I HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) I ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) I KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) I MILAI
Nirekin (Gozategi) I GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) I HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) I TXANPON
Himnoak
Eibar I EIBAR
Athletic Club I BILBAO
Osasuna I OSASUNA
Reala I REAL
Real Union I UNION
Herrikoiak
Bagare I BAGARE
Desde Santurce a Bilbao I DESDE
Ikusi Mendizaleak I MENDI
Pintxo-pintxo I PINTXO
San Simon eta San Judas I SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego I ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) I JAIA
San Fermin I FERMIN
San Martzialetako alardea I SAN MARTZIAL
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) I SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) I BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) I BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) I BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) I EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) I EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) I EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) I POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) I FURRA

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
1,2,3,4…Real!! I REAL
Alboka I ALBOKA
Athletic luep!! I IEUP
Buztan bertsoa I BERTSO
Hartu…Aitaren ta semea.. I AITAREN
Hartu…Ansar I ANSAR
Hartu…Argentinarra I ARGEN
Hartu…Mexikarra I MEXIKO
Hartu…Miamol! I MIAMOL
Independentzia! I INDEPEN
Irrintzia I IRRINTZI
Jotake irabazi arte! I JOTAKE
Milazu! (pilota) I MILAZU
Suprinua I SUPRINU
Tobera I TOBERA
Txalaparta I TXALA
Txanbela I TXANBERA
Txoootx I TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA
IKURRI4 ADARIAK MUSKARIA EGUZKILORE1
EH1 BABAK KALABERA1 EGUZKILORE2
BILBO BERAKATZAK POPATIK EGUZKILORE3

OHARRAK
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.